

SAKONTZE EGITASMOA

BAKIOKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA

Bakioko egoera soziolinguistikoaren azterketatik abiatu eta horretan oinarrituta euskara biziberritzeko plan eredu proposamena egitea da lan honen xedea.

Bakio Bizkaiko kostaldean dago; Bermeo eta Lemoizen artean badago ere, 10 bat km-ra dagoen Mungiarekiko lotura gero eta handiagoak ditu, batetik, industrigune nahiko garrantzitsua delako Mungia, eta bestetik, ikasketen lehen zikloa baino ezin delako herrian bertan egin, hortik gorakoak, Mungia, Derio, Bermeo edota Bilbon egitea beste aukerarik ez dagoelarik; ahaztu gabe doa, eskualdeko osasun-zerbitzuak ere Mungian daudela edota merkataritza eskaintza mugatua aurki daitekeela, oraindik ere, Bakion.

"Udal-ereduen arabera hedapenak" agirian aipatu legez, "EBPN ez da dokumentu itxi eta aldezina, ireki eta etengabe egokitzeko sortua, baizik." Baieztapen hau are egokiagoa da Bakiori dagokionez, azken urteotan etengabe hazi baita bertako biztanleria, eta itxura guztien arabera hazkunde hori areagotu egingo baita datozen urteotan; hortaz, egitasmo ireki bezain dinamiko eta malgua beharko du Bakioak, unean-unean herriaren errealitate aldakorrari egokitu zaiena.

1996	Euskaldunak	1996	Euskaldunak	1996	Euskaldunak
BAKIO	50/70%	JATABE	70/90%	MEÑAKA	>90%
MUNGIA	50/70%	GATIKA	70/90%	FRUIZ	>90%
LAUKIZ	50/70%	GAMIZ-FIKA	70/90%		
ARRIETA	50/70%				

Bakiorako bezain baliagarri da aurreko osorako ere, Mungia bera eta etengabeko hazkunderan Horrek, ezinbesteko mailako koordinazioa, eta, batez ere mendekotasun maila Bakion hain jasaten den prozesuak, baina antzeko eskualde osoan ere. transmisioari dagozkion kezkarriak dira, Mungia eta Handitik datozen biztanle erdal hiltunen Duela ez urte asko, Uribe-Butroen euskara gaztelaniarena da nagusitasuna, eta Plentzia-Sopela-Urduliz inguruak jasan zuen bilakaerari jarraiki doala esan daiteke, tamalez.




hausnarketa eskualde inguruko herriak, murgilduta daude eta. bihurtzen du eskualde herrion arteko loturak Mungiarekiko direla medio. abiadura handian ordezkatzemotelago agian, ezaugarriak ditu Familia bidezko datuak oso Bakion bereziki, eta Bilbo jarria etengabea da. nagusi bazen ere, egun

BIZTANLERIAREN EGITURAZ HAINBAT DATU:

Biztanle kopurua: 1.341 (1996ko Zentsuko datuen arabera)

Euskaldun kopurua%67 Elebidun hartzaileak%3,43 Erdaldunak: %29,53

Biztanleriaren egitura, adinaren arabera



15/50 urte tartean aurkitzen ditugu Bakioko biztanle guztien erdiak baino gehixeago, eta biztanleria haziz badoa ere, ez da jaiotze-tasari esker, honek nabarmen egin baitu behera azken 20 urteotan, ageri denez.


Guztira (urteak)				Gizonezkoak (urteak)				Emakumezkoak (urteak)			
Guzt	0-19	20-64	>65	Guzt	0-19	20-64	>65	Guzt	0-19	20-64	>65
1.389	270	901	218	708	125	482	101	681	145	419	117

Gizonezkoak emakumezkoak baino gehixeago ziren 1996ko erroldaren arabera, dena den, aldagai aldakorra eta garrantziarik gabekoa da hau, errolden bilakaerari erreparatuz gero.

Bestalde, % 20ra ez da heltzen 20 urtera arteko biztanleen proportzioa; datu hau ere, oso kontuan hartu beharrekoa da planaren diseinuari ekiterakoan.

POPULAZIOAREN HAZKUNDEA

1891ean 1189 biztanle izatetik, 1996an 1389 izatera igaro zen Bakio, hots, 200 besterik ez zituen irabazi; alabaina, 1998an 200 gehiago, eta 2002ko Udalerroldan 1.815 biztanle ageri dira, dagoeneko...



Datuok adierazi legez, proportzio ikaragarrian haziz doa Bakioko biztanleria, hazkunde hori areagotu egin da azken laupabost urteotan eta Udal, Foru-aldundi nahiz Jaurlaritzaren asmoak asetzeraz dator, gainera. Hazkunde nabarmena da eskualde osoan, baita euskararen erabilera duen eragina ere, herrialde barneko migrazioa izan arren, biztanle berriok populazio handiko gune erdaldunetatik baitatoz (Bilbo Handia delakotik) nagusiki.

Guztira			Biztanleria lurralde-eremuei jarraiki, jatorria eta sexuaren arabera. 1996.								
Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Sedentarioak			Barne-migratzaileak			Etorrinak		
1.389	708	681	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko	Guztira	Gizonezko	Emakumezko
			618	320	298	708	352	356	63	36	27

Erabilerari erreparatuta, hazkunde azkar honek lagun-taldean osaerari ere, eragin dio. Izan ere, **ez dago egun euskal hiztun hutsez osatutako lagun-talderik Bakion**, (ezta neguan ere), 15-16 urtetik beherakoan artean ez bada, eta hauen artean ere, erdararen aldeko hautua oso goiztiarra da.

Turismoa*, herriaren egitura (zeozelan esatearren) urbanistikoa eta besteren eraginez, euskararen erabilera baserri-eremuetara mugatuta egon da; erabateko haustura zegoen baserri eta kaleko hizkuntz ohiturei dagokionez. Euskararen presentzia urria da eta "testimoniala" bihurtzekotan da Bakioko kaleetan (Siadecok 1998an Bakioko tabernetan burututako neurketa batean, %8koa zen euskararen erabilera maila).

* Udan 12.000 udatiar dauzkagu herrian, eta hauei, egunero joan-etorria egiten dutenak gehitu behar zaizkio.

BAKIOTARREN HIZKUNTZ GAITASUNARI BURUZKO DATUAK

2 urte eta gehiagoko biztanleria, euskara-maila globalaren arabera. 1996.

Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunak				Erdaldunak
	Guztira	Alfabt	Erdialfa	Alfaez	Guztira	Alfabt	Alfaez	Pasiboak	
1.364	912	267	78	567	64	13	37	14	388

Nabarmena da alfabetatubakoen kopuru altua, euskaldunen % 62,17 hain zuzen; % 8,55 erdi alfabetatuak eta %29,27 baino ez, alfabetatuak. Datu hau ere, oso kontuan hartzekoa da edozein ekimeni ekin aurretik.


Hizkuntz gaitasuna adinaren arabera (1996)

(adin tartea)	Euskaldunak	Elebidun Hartzaileak	Erdaldun Elebakarrak
Guztira	899	46	396
5etik 14ra	103	5	13
15etik 24ra	166	13	43
25etik 34ra	120	9	89
35etik 49ra	175	14	124
50etik 64ra	163	4	88
65etik aurrera	172	1	39

Datuok argi adierazten dute 25 eta 50 urte* bitarteko biztanleen multzoan pilatzen dela erdaldun kopururik (biztanleen %40) handiena, eta esanguratsua euskaldun kopuruarekin (%55,35) erkatuz gero. Izan ere, datu kezagarria da hau, gizartearen pertzepzioan, soziologoaren arabera, adin tarte horretako herritarrak baitira, besteak beste, jarraitu beharreko "eredua" zedarritzen dutenak, eta agerikoa da adin-eremu horretan euskaldun-sarea pitzatua behar duela, eta dela, edonondik ere.

5 urtetik 24 urtera arteko adin-tartean %78,4 dira euskaldun, %16,3 erdaldun daudelarik, hots, euskaldunen proportzioak oso gora dago adinean "behera" egin ahala, baina hauexek dira, hain justu, euskal hiztunen artean, Bakion euskara gutxien erabiltzen dutenak, egin diren azterketen arabera, lehentxoago aipatu duguna berretsiz.

Hizkuntz gaitasuna adinaren arabera



Hizkuntz gaitasunaren bilakaera, 1981-1996

1981	Euskaldunak	1996	1981	Elebidun Hartzaile	1996	1981	Erdaldun Elebakar	1996	
165963		260093	124578		188760	803656		647845	Bizkaia
796		899	66		46	220		396	Bakio

Herrialdeari buruzko datuekin erkatuz gero, joera kontrajarria agertzen dute Bakiori dagozkionak. Izan ere, Bizkaian, oro har, gero eta erdaldun elebakar gutxiago eta euskaldun (elebidun) gehiago dago, Bakion, oster, gero eta erdaldun elebakar gehiago (1981ko errolatik 1996kora arte, 9 puntuz egin du gora erdaldunen batz bestekoak), eta proportzionalki, euskaldun (elebidun) gutxiago.

Hizkuntz gaitasunaren bilakaera(%)

Euskaldunak				Elebidun hartzaileak				Erdaldun elebakarrak			
1981	1986	1991	1996	1981	1986	1991	1996	1981	1986	1991	1996
73,6	70,7	74,4	67,0	6,1	6,8	5,3	3,4	20,3	22,5	20,4	29,5

1981etik 1996ra irabazitako biztanleetatik, hirutik bi, erdaldun elebakarrak dira.

Helburu estrategikoa
EUSKARA ONDORENGOETARATZEA -FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA-

Biztanleriaren ama-hizkuntza (1996)

Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania
%57,9	%6,2	%35,9

Euskaldunzaharrak	%57,3	768	Partzialki erdaldunduak	%0,9	12
Jatorrizko elebidunak	%5,1	68	Guztiz erdaldunduak	%0,9	12
Euskaldunberriak	%4,7	63	Erdaldunzaharrak	%28,6	384
Partzialki euskaldunberriak	%2,5	34			

Ama-hizkuntzaren bilakaera 1986-1996

	Euskara	Biak	Gaztelania	Beste
1986	65,1	5,5	29,2	0,3
1991	65,8	7,2	26,9	0,1
1996	57,9	6,2	35,9	0,0

Horra beste datu esanguratsu bat; izan ere, haziz doa gaztelania lehen hizkuntzatzat dutenen proportzioa, eta jaitsiz, neurri berean, euskara lehen hizkuntzatzat dutenena. Jatorriz elebidun direnen proportzioak ez du aldaketa handirik jasan artean... Honek guztiak, eragin handia izango du gazteenen hizkuntz ohiturak hedatzeko orduan, hortaz, eskolorduetatik kanpo ere, euskararen erabilera ahalbideratuko duten "guneak" eratu beharko dira.

Ama-hizkuntza eta etxean erabiltzen den hizkuntza.1996.

Guztira	Ama-hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste.	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
1.389	794	506	89	-	194	562	633	-

✓ % 22 doi-doi baino ez da euskara etxeko hizkuntza euskaldunzaharren artean; hauetatik ia %71,7ren etxeko hizkuntzak gaztelania eta euskara, biak dira, artean.

Datuok guztiok ikusita, erabileran eragiten duten faktoreen artean, euskaldun-dentsitatea, eta euskaraz egiteko gaitasunaz gain, euskararekiko pertzepzioaren garrantzia azpimarratzeko modukoa da,... txarrerako dagokigun kasuan.

HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA (5 URTEZ) 1996

Hizkuntza gaitasuna eta ama-hizkuntza gurutzaketak ematen digu hizkuntzaren bilakaera:

Biztanleak	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak
1.341	768	68	63
	%57,3	%5,1	%4,7

Partzialki euskaldunberriak	Partzialki erdaldunduak	Gutziz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
34	12	12	384
%2,5	%0,9	%0,9	%28,6

✓ Euskaldunberri eta partzialki euskaldunberrien multzoa (%7,2), partzialki eta gutziz erdaldunduena (%1,8) baino dexente handiagoa da, hau da, irabaziak galerak baino handiagoak dira gaitasunari dagokionez.

Erabiltzaile potentzialak 945. Biztanleak 1.341. Ez erabiltzaileak 396.

Euskaldun zaharrak			Euskaldunberriak			Partzialki erdaldunduak		
Euskaraz aktibo	Bietan aktibo	Euskaraz pasibo	Euskaraz aktibo	Bietan aktibo	Euskaraz pasibo	Euskaraz aktibo	Bietan aktibo	Euskaraz pasibo
190	553	25	1	6	56	0	6	6
Jatorrizko elebidunak			Partzialki euskaldun berriak					
Euskaraz aktibo	Bietan aktibo	Euskaraz pasibo	Euskaraz aktibo	Bietan aktibo	Euskaraz pasibo			
0	53	15	0	3	31			

. Gazteak, euskaraz alfabetatuak izan arren, ez ohi dira euskaraz aktibo, eta ahozko erregistroari dagokionez, hainbatek nahastu egiten ditu batua eta bizkaiera. Izan ere, orain arte eskolan erabilitako eredu bakarra euskara batua izan da, eta horrek, zalantza barik, eragin kaltegarria izan du kasu askotan; batetik, **etxetik zekarten eredu** "okertzat" jotzen zutelako, eta bestetik, "eredu zuzena" zelakoa etxeratu eta arazoa, neurri baten, guraso eta aitite-amamei ere ekarri dietelako(**eredu edo erregistro ezberdinen arteko "lehia" gaztelaniaren mesedetan erabaki da askotan**). Izan ere, oso zabaldua egon da eta dago, bertoko euskalkia pobre eta itxuragabea, eta batua nahiz gipuzkera bera ere, eredu zuzen eta jasoak direlako ustea; adibide mamitsuak aipa daitezke gai honen inguruan...

Helburu estrategikoa
EUSKARA ONDORENGOETARATZEA -IRAKASKUNTZA ARAUTUA-

Bakioko udalerrian ikastetxe bakarra dago: Urkitza ikastetxea. Ikastetxe honek bere hezkuntza eskaintza osoa D ereduan garatzen du, Haur Hezkuntza eta Lehen Mailako Hezkuntzan.

	97/98	00/01	01/02
Ikasmaila	Ikasle-kopurua	Ikasle-kopurua	Ikasle-kopurua
Haur Hezkuntza	10	25	27
Lehen Mailako Hezkuntza	36	28	34
GUZTIRA	46	53	61

Ikastetxeko zuzendaria, idazkaria eta 8 irakasleak euskaldun alfabetatuak dira.

Bakion ikasten duten ume guztiak euskaldunak direla (edo euskalduntzen ari direla) badakigu, baina ez dakigu zehatz, zenbat haur eta gazte dabilen ikasten Bakiotik kanpo, zein ikas eredutan eta zein euskara mailarekin.

Herrian ikastetxea izan arren, 12 urtetik beherako ia 40 ume Bakiotik kanpora daude eskolaratuta. Bestalde, Bakioko haur eta gaztetxoaren artean euskararen ezagutza zabala bada ere, gaitasunari dagokionez alde nabarmenak daude, euskara ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntza dutenen artean.

Eskolako barne eta kanpo-harremanak euskara hutsez garatzen dira, ele bietan egiten diren barruko nahiz kanpoko idatziak (aginduak, zirkularrak, barne-oharrak, herritarrei egindako gutunak, ohar pertsonalizatuak, etab...), edo gurasoekin egin bilera irekiak (nagusiki gaztelaniaz) izan ezik.

Urkitza ikastetxean irakasleek bultzatu eta ikasleek antolatutako kanpainak egiten dira sarritan: kartelak jarri, elkarri atentzioa deitu, abestiak itzuli, gurasoentzat oharrak idatzi, etab.

Herriko berbaera eta euskara estandarren erabilerak uztartzeko unitate pedagogikoa egiteko asmoa omen dago. Honen aurrekari gisa, Mendebalde elkarteak ikastaroa eskaini zuen 2000ko abenduan, ikastetxeko irakasleei zuzenduta gehienbat.

Ez dago, oraingoz, erabilerareagotzeko egitasmo zehatzik ikastetxean, baina ikastetxeak Nolega egitarauak eskainitako hainbat ekimen baliatzen ditu, halanola, antzerkigintza, kantagintza, irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoa...

Eskolaz kanpoko ekintzak euskara hutsez egiten dira.

Eskolako jantokiko beharginak ere euskaldunak izan daitezzen arduratzen dira ikastetxeko arduradunak.

Hutsunerik handienak, ikastetxe barrukoak baino, eskolaz kanpo gertatzen diren jardueren hizkuntza praktiketan igartzen dira: familia barruko solasaldiak, lagunarteko jardueran,...

HAUR- ETA LEHEN-HEZKUNTZAREN BILAKAERA ADIN TALDEKA (86/87 - 02/03)

1986tik 1996ra bitarteko bilakaera, 3 urtetik 14 urtera arteko eskola-umeak.

ikasturtea	86/87	87/88	88/89	89/90	90/91	91/92	92/93	93/94	94/95	95/96
Haur hezk	37	31	25	26	27	19	15	15	14	13
I. hezk	109	104	79	90	85	82	78	70	61	50
Guztira	146	135	104	116	112	101	93	85	75	63

1996tik 1999ra bitarteko bilakaera; 3 urtetik 12 urtera arteko eskola-umeak.


ikasturtea	96/97	97/98	98/99
Haur hezk	14	12	19
I. hezk	45	48	44
Guztira	59	60	63

1999tik 2003ra bitarteko bilakaera; 2 urtetik 12 urtera arteko eskola-umeak.

ikasturtea	99/00	00/01	01/02	02/03
Haur hezk	21	22	28	29
I. hezk	40	35	35	36
Guztira	61	57	63	65

Aurreko datuotan argi ikusten da jaiotze-tasaren jaitsieraren eragina, hala nola, 96tik aurrera, matrikulazio tasaren jaitsiera eten eta matrikula kopurua egonkortu dela; matrikulazio kopuruari eutsi izana herrialdetiko inmigrazioari egotzi behar zaio.

Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaerari buruzko daturik ezean, Bakioko ikaslerik gehienek ikasketak egiten Mungian jarraitzen dutenez , bertako eskola-ereduei buruzko informazioa ekarri dut orriotara.



DBH eta BAL delakoetan D ereduaren hazkundera etengabea da eta A eredua desagertzerara doa. B eredua ere jaitsiz doa arian-arian, D ereduaren mesedetan. Lanbide Heziketari dagokionez, ostera, ia erabatekoa da erdal ereduaren nagusitasuna, horrek, zama itzela eragiten die enpresetan garatu beharreko erabilera bultzatzeko ekimenei.

Datu zehatzagorik ezean, Urkitza Ikastetxeko arduradunek adierazitakoaren arabera, Bakion lehen zikloa burutzen duten ikasle gehientsuenek D ereduan jarraitu ohi dute, aukeran.

Bakiotarren ikasketa mailaz (1996ko datuak)

Guztira	Ez alfa.	Ikasketarik ez	Haur+ Lehen Hezkuntza	LH	2.hezkuntza	Erdi/ Goi-maila	Goi-maila
1.287	3	187	559	103	199	74	162

Datuon argitara, interesgarria litzateke ikasketa maila, adina eta euskaldun alfabetatu kopuruaren datuei buruzko gurutzaketa egitea. (erdi- edo goi-mailako ikasketak dituztenak 236 dira, euskaldun alfabetatuak 267...)

Helburu estrategikoa

EUSKARA ONDORENGOETARATZEA -EUSKALDUNTZE/ALFABETATZEA-

Bakion helduak euskaldundu eta alfabetatzako eskaintza Kinttopeko-AEK euskaltegiaren eskutik dator.

Hastapenak nekagarri samar suertatu baziren ere, gaur egun, Udalak lokalak eta bestelako laguntzak ematen dizkio Bakioko aekri.

1996/7 ikasturtetik euskaltegiko ikasleei matrikularen %40 ordaintzen die Udalak, asistentzia eta aprobetxamenduaren arabera, (diru-laguntzek eragin positiboa izan dute matrikulazioan).

Azken laupabost urteetan matrikulazioa 25/30 ikasletan egonkortua bazen ere, badirudi 2001-2002 ikasturtean jaitsiera izan dela; izan ere, ez da erraza talde homogeneoak eratzea oinarrizko edo goi-mailetan ez bada, eta lantzean behin baino ez dira sortu alfabetatze taldeak.

Bestalde, kopuru zehatzik eduki ez arren, Labairura (Derio) joan ohi dira ikasle batzuk, gehienbat EGA agiria lortzeko azterketa bizkaieraz egin ahal izateko.

Euskara zerbitzua eta euskaltegiaren arteko ekimen bateratua egiteko asmoa zegoen gaztetxoan erabileran eragiteko, baina bertan behera gelditu da.

Euskaltegiaren izaera, egoera, jarduna. Aurrera begira.

AEKren eskutik hainbat kultur-jarduera burutu izan dira Bakion euskaltegia sortu zenetik: bertso-afariak, musika-emanaldiak, antzerkia, eta abar. Hauetatik gehienak euskara batzordetik bideratzen dira, AEK bertan integratu zenetik.

Euskalduntze-alfabetatze arloaren gabezia estrukturalak eta AEKrenak, dagokigun kasuan, zaildu egiten dute arlo honetan planifikazio egonkorra garatzea; oztopoak areagotu egiten dira Udalaren apustu garbirik ezaren eraginez. Bultzada sendoaren behar gorria dago; Udalak eta AEK-k esparruaren azterketa sakona egin, helburuak finkatu, konpromiso zehatzak hartu eta hitzarmena gauzatzea ezinbestekoak dira helduen euskalduntze-alfabetatzean aurrera pausurik emango bada.

Helburu estrategikoa
EUSKARAREN ERABILERA -AUZOGINTZA ETA ZERBITZUGINTZA-

1. ADMINISTRAZIOA

UDALAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Euskaldun kopurua: %67

Elebidun hartzaileak: %3,43

Dagokion indizea (euskaldunak + ia euskaldunak/2): %68,7

Lehen plangintzaldirako erabilera plana ez zen osatu, are gutxiago ebaluatu.

Eskualdeko beste euskara zerbitzuekiko koordinazio maila: hutsaren hurrengoa.

Euskara zerbitzuaren aurrekontua: aurrekontu osoaren%1,3 (1998an) izan da dagokigun esparruari esleitutako kopururik altuena aurton arte (2002). Dena den, ez dut aurrekontu zehatz eta atalez atalekoa lortzerik izan. Horren ordez, urte batzuetako guztirako kopuruak eta beste batzuetako (euskarari dagozkionak) gastuak zehaztuta edo, besterik ez.

Udalbatzaren osaera	Hizkuntz ezagutza maila			
	Uler./	Berba egin/	Irakur./	Idaz.
José Domingo Rentería Fernández (A)	5	5	2	1
Kepa Uriarte Uriarte (Ao)	5	5	5	5
Juan María Anitua Okaranza	4	3	1	1
Luis Aio Lasa	5	5	2	1
Jon Josu Ormaza Ugarte	5	5	3	1
Luis Florencio Zabala Santa Ana	5	5	5	5
Iban Cancio Uriarte	5	5	5	5
Begoña Makazaga Arietaleniz	5	4	4	4
Begoña Zubiri Sánchez	2	2	1	1

Euskararen elikadura atalean aurrekontuei buruzko azalpen zabalagoa dator.

2002ko martxoaren 13an onetsitako Bakioko Udaleko lanpostu zerrenda

Lanpostua	Lan harr.	Atala	Dagokion HE	Egiaz. HE	Euskara maila	Derrigor.Data
Idazkari-kontu hartz.	Funtzionario	Idazkaritza	4	4		93-12-30
Administrari-lag.	Funtzionario	Idazkaritza	3		Alfa 1	93-12-30
Administrari-lag.	Funtzionario	Idazkaritza	3	2		93-12-30
Udaltzaina	Funtzionario	Idazkaritza	2	2		93-12-30
Udaltzaina	Funtzionario	Idazkaritza	2		102	93-12-30
Garbitzailea	Funtzionario	Eskola	1		?	
Garbitzailea	Funtzionario	Eskola	1		Alfa 0	93-12-30
Aparejadorea	Funtzionario	Bulego teknikoa	3	3		2002-12-30
Obra/zerbitzu burua	Lan legepeko Kontratu mugabakoa	Zerbitzu lantaldea	2	2		93-12-30
Kale Garbitzailea	Lan legepeko Kontratu mugabakoa	Zerbitzu orokor	1		Alfa 0	93-12-30
Administraria	Aldi bat. funtzionario	Idazkaritza	3	3		97-10-30
Administraria	Aldi bat. funtzionario	Idazkaritza	3	4		97-10-30

Onartutako lanpostu zerrendaren arabera:

Lanpostuak:12 Derrigortasun-datadunak:11 (%91,67)
Lanpostu hutsak:2 (%18,18)
Adinagatik salbuetsitakoak: 1 (%9,09)
Dagokien HE egiaztatuta: 5 (% 45,45)
HE 1 gutxiago: 1 (%9,09)
2 HE gutxiago:1 (%9,09)
3 HE gutxiago:0
Ez dute ezer egiaztatu:1 (%9,09)

Datuok adierazi legez, udalak ez du dagokion derrigortasun indizea betetzen, baina, lanpostu zerrendan ageri ez diren eta udalean diharduten langileak kontuan hartuz gero, indizetik gora legoke langile euskaldunen kopurua, hurrengo orrian egiazta daitekeenez.

Onartutako lanpostu zerrendakoez gain, hainbat langilek dihardu Udalean beharrean:

Lanpostua	Lanharr.	Atala	Euskara maila	Oro har, Udal barruan jardungo duten aldi baterako langileei 2 edo 3.HE eskatzen zaie.
Arkitektoa	orduka	Bulego teknikoa	5	
Administrari-lag.	Arrendamen du-kontratu	Idazkaritza	EGA	
Administrari-lag.	Arrendamen du-kontratu	Idazkaritza	EGA	
Administrari-lag.	Arrendamen du-kontratu	Diruzaintza-dirubilketa	2.HE	
Kultur-teknikaria	Arrendamen du-kontratu	Kultur-etxea	3.HE	
Teknikari-laguntzailea	Arrendamen du-kontratu	Kultur-etxea	3.HE	
Turismo-teknikaria	Arrendamen du-kontratu	Turismo bulegoa	3.HE	
Turismo-teknikaria	Arrendamen du-kontratu	Turismo bulegoa	4 maila	
Turismo-teknikaria	Arrendamen du-kontratu	Turismo bulegoa	3 maila	
Udako udaltzainak (5)	Udarako	Udaltzaingoa	2.HE	

Horiez gain, askotariko lanetarako langile taldea ere badago, beharren arabera kopurua biltzen duena eta inongo hizkuntz irizpiderik bete behar ez duena.

Azkenik, astean behin eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako teknikaria ere aritzen da Udalean; honentzat ere ez dago hizkuntz irizpiderik.

Udal Batzordeen osaera eta hizkuntz jarduerak

	Kideak	Euskaldun/ ez	Jardun
Osoko bilkura	Alkatea eta beste 8 zinegotzi	Euskaldunak guztiak	Euskara hutsez
Ogasun batzordea	Zinegotzi bi eta administrari bi	Euskaldunak guztiak	Erdaraz
Kultura batzordea	Hiru zinegotzi eta kultur teknikaria	Euskaldunak guztiak	Euskara hutsez
Hirigintza b.	Hiru zinegotzi eta arkitektoa	Euskaldunak guztiak	Bietara/ gazteleraz
Euskara batzordea	Zinegotzi bat, euskara teknikaria, taldeen ordezkari...	Euskaldunak guztiak	Euskara hutsez

Udaleko atalen osaera eta hizkuntz jarduera

Idazkaritza

Administrari 1 (eusk)	Dekretu eta iragarkiak ele bietan; eskarien ia %100 erdaraz, etorri ere hala baitatoz.
Administrari laguntzaile 3 (eusk)	
Idazkaria (eusk)	

Bulego teknikoa

Aparejadorea (eusk)	Ahoz bietara jarduten badute ere, idatziz gehien-gehiena gaztelaniaz.
Arkitektoa (eusk)	

Bake epaitegia

Administraria (eusk)	Gaztelaniaz nagusiki. Eskabideak Gernikako auzitegitik datoz, ia guztiak gaztelaniaz.
Bake-epailea (eusk)	

Diru zaintza-diru bilketa

Administrari laguntzailea (eusk)	Gaztelaniaz nagusiki.
Administrari laguntzailea (eusk)	

Kultur etxea

Kultur teknikaria (eusk)	Euskaraz
Teknikari laguntzailea (eusk)	

Turismo bulegoa

Turismo teknikaria (eusk)	Euren artean nagusiki gaztelaniaz.
Teknikari laguntzailea (eusk)	Bezeroari arreta ele anitzetan.
Turismo teknikaria (eusk)	Iragarkiak, oharrak... ele bietan.

Udaltzaingoa

Udaltzaina (eusk)	Urtean zehar diharduten bi udaltzainon ohiko jarduna gaztelaniaz, tarteka euskarazko txostenik betetzen bada ere. Udako euskaltzainek euskaraz burutzen dituzte txostenak.
Udaltzaina (erdalduna)	
Udako udaltzainak (eusk)	

Zerbitzu lantaldea

Burua (eusk)	Gaztelaniaz bete ohi dute jarduna.
Peoiak (denetarik)	

Eskolako garbitzaileak

Garbitzailea (eusk)	Gaztelaniaz.
Garbitzailea (erd)	

Aplikazio informatikoak: Word euskarazko bertsioan baina Office gaztelaniazkoan dute ezarrita guztiak.

Udal agirietan euskararen erabilerari buruzko azterketa laburtua

- Osoko Bilkurako aktak eta Batzordetako aktak euskara hutsez; Aztergaiak bietara edo euskara hutsez.
- Iragarkiak: bietara.
- Pleguak: gehienetan gaztelaniaz.
- Ziurtagiriak: gehienak ele bietan, gutxiago gaztelania hutsez eta bakan batzuk euskara hutsez.
- Akta egiaztagiriak: euskara hutsez, gaztelania hutsez baino gehiago.
- Kontratuak: gaztelaniaz.
- Hitzarmenak eta barne dekretuak: Gehientsuenak gaztelania hutsez, gutxi batzuk euskara hutsez.
- Kanporako dekretuak: ele bietan gehienak; batzuk gaztelania hutsez, hala ere.
- Txostenak (Urigintza, juridikoak...): gaztelania hutsez gehienak, euskara hutsez gutxi batzuk.
- Ofizioak eta aurrekontuak: gaztelania hutsez, euskara hutsez baino gehiago.
- Argitalpen, triptikoak...: ele bietan.
- Kultur etxeko iragarpenak: euskara hutsez, ele bietan baino gehiago.

Udaleko beharginen arteko harremanetako erabileran denetik aurki daiteke; beti euskaraz egiten dutenak (bakanak), nola euskaraz hala gaztelaniaz egiten dutenak, edota gehien-gehienetan gaztelaniaz egiten dutenak ere. Euskara teknikariari eta bi batzorde-bururi euskara hutsez zuzentzen zaizkie dakiten guztiek, bestela, esan legez, denetik.

UDALAK NORMALIZAZIOAN EGINDAKO BIDEA ETA DITUEN GIZABALIABIDEAK

Lanpostu zerrendaren onarpena, indarreango legediaren arabera (1991-5-21ean, lehenengoz).

Hizkuntza normalizaziora zuzendutako neurriak: 1991n hasi ziren akten gai zerrendak euskaraz egiten, eta euskara Udal osoko bilkuraren hizkuntza nagusi bilakatu (egun, euskara hutsez egin ohi dira).

1994an, kaleratu beharreko agiriak elebietan egiten hasi ziren.

Euskararen ordenantzak (eranskinean): Onartuta egon arren, betetzetik urrun.

Ez dago trebakuntza planik.

Hizkuntz eskakizuna lortu beharra zeukaten langileak Mungiako Udal euskaltegira bidali zituzten ikasturte batez, baina gerora ez da ezelako neurririk hartu.

Terminologia-lanak eta baliabideak

Foru Aldundiak eskueran jarritako web-orriko baliabideak eta HAEEn zenbait argitalpen, Elhuyar eta 3000 Hiztegia. Ordenagailua darabilten langileek Xuxen ezarrita daukate.

Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko egindako hitzarmenak

Ez da inolako hitzarmenik gauzatu.

Dena dela, "posible denean" elebietan dira erakunde ofizialekiko hartu-emonak, tarteka-marteka, praktikan.

Hizkuntz-normalizazio lanetan diharduten langileak

Hizkuntz normalkuntzarako teknikaria: Joseba Terreros Gaston.

Dedikazioa: astean 35 ordukoa (28 Bakion eta beste 7ak Meñakan).

UDALAK PROPOSATUTAKO NORMALIZAZIO-EKINTZAK

Atalen izaera zehaztea, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 16. Atalari jarraiki:

- Atal guztiak "euskarazko atal" bilakatzea helburu.
- Lehentasunezko zat jotzen diren Jendaurreko atal eta lanpostuak : guztiak.
- Lanpostu zerrendan aldaketarik ez egitea erabaki zuen osoko bilkurak.

Euskararen erabilerari buruzko hizkuntz irizpideen onarpena* eta gauzatze konpromisoaz:

- 1- Lehen plangintzaldian dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten langileekiko hartuko diren erabaki eta neurriak:
dagokien hizkuntza eskakizuna plangintzaldi honetan bete dezaten ahaleginak eskatu zitzaizkien , beraz, derrigortasun epea 2001era arte luzatzea eskatu zuen Udalak, langileak "presiopean senti ez zitezten". Udaltzainetako bati dagokion salbuespen eskaria egin zen, hizkuntzak ikasteko ezintasuna dela eta.
- 2- Kontratazio arloan hartutako neurriak...
Langile berri guztiei hizkuntza eskakizuna esijituko zaie.
Zerbitzuren bat hirugarren baten bidez eman beharko balitz, zerbitzua udalak berak emango balu legez hartzea erabaki arren, lanen iragarpenetarako baino ez da betetzen.
- 3- Administratu eta gainerako erakundeekin izaten diren ahoz nahiz idatzizko harremanak euskara hutsez gauzatuko zirela ahal den guztietan (hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea errespetatuz) erabaki arren, gehienetan, herritarren edo beste administrazioen ekimenez baino ez dira euskaraz burutzen.
- 4- "Jendaurrerako kartel, idazki, iragarki eta abarrak euskara hutsez kaleratuko dira, baina pertsona guztien hizkuntz eskubideak errespetatuz. (udalak arlo honetarako derrigortasun indize bat ezartzea aztertuko du, hots, kartelen ehuneko altu bat euskara hutsean eta beste guztiak elebietan kaleratzea)".

* 2, 3 eta 4. puntuon betetze maila oso gorabeheratsua da, eta ez dira irizpideak gauzatzen.

Aukeratutako lehentasuneko ataletan erabilera-plana abian jartzeko kronograma ez da egin.

BESTELAKO ADMINISTRAZIO EREMUAK: TURISMO BULEGOA, OSASUN ZERBITZUA, POSTA ZERBITZUA...

Bakioko osasun zerbitzua medikuak eta ATS batek osatzen dute, erdaldunak biak ere. Hizkuntza paisaia gaztelaniazkoa da, oro har.

Posta zerbitzuan langile bik dihardute gaur egun, Bakioko euskaldun zahar peto-petoak, hots, gaztelaniaz aritzen dira beharrean euren artean nahiz bezeroekin, azken hauek euskaraz insistitzen ez badute. Bertako ohar, txartel, hizkuntz paisaia oro har, erdarazkoa da gehiena.

Negargarria da, batez ere, osasun zerbitzuekin gertatzen dena; izan ere, eskubideak eskubide, adineko jendeak erabiltzen ditu zerbitzuok sarrien, gaztelaniazko ezagupenik urrienak dituztenak, hain zuzen, horren dakarren guztiarekin; uste dut ez dagoela ezer gehitu beharrik...

Turismo bulegoari dagokionez, aurrerago aurkituko duzue jarduera honen ezugarrien berri.

2. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

Herri txikia izanagatik, bi web-orri dauzka Bakiok, Udalarena bata eta ekimen pribatukoa bestea.

Udalarena (www.bakio.org) euskaraz (bizkaieraz) dago eta gaztelaniaz ikustarazteko aukera ematen du.

Ekimen pribatuko www.bakio.com delakoa erdara hutsezkoa da; beno, ez, ... "sartu", "ongi etorri" eta halakoak ageri dira, egia osoa esateko.

Bakio.org web-orriak honako estekak jartzen ditu eskueran: baliabide turistikoak, garraioei buruzko informazioa, ospakizunei buruzkoa, bisita birtualak, argazkiak, kultur ekitaldiei buruzko informazioa, "gaurkotasuna", kirol jardueri buruzkoa, elkarteen berri, turismo azpiegitura, argitalpenetera loturak (txirritxola, herri-barriak...), ibilbide eta bidezidorrak, iradokizunak egin eta informazioa eskatzekoak.

Hainbat atal gutxi landuta ageri dira oraindik ere, eta bestelako web-orri batzuetarako loturarik ez du eskaintzen.

Aurton, 10 ordenagailuz hornitutako zibergunea eratuko da gazteei zuzenduta (euskarazko aplikazioak ezarrita), gehienbat. Eusko Jaurlaritzaren Konekta Zaitetz programaren modulua ipiniko da, eta, informatika eta hizkuntz ikastaroak (On line) egingo dira. Era berean, Kultur etxean 5 ordenagailu instalatuko dituzte. Zibergune nahiz Kultur etxeok euskaraz eskainiko dute sarrera-orria.

3. LAN MUNDUA

Lehen sektoreari dagokionez, oso galera handiak jasan dituela esan beharra dago; izan ere, oilotegi industrial batzuk (biziraunean), nekazal ustiategi bat edo beste eta txakolingintzan diharduten hiru bodega, ia besterik ez dago, jada. Gazte bakan batzuk ahaleginetan dabilen arren, ez dago ia aukerarik arlo honetan, nekazaritzaren bilakaera Euskal Herrian, oro har, txarra barik gaiztoa delako, batetik, eta Bakion nekazal lurren azalera ziztu bizian urrituz doalako (eraikuntza basatiaren mesedetan), bestetik.

Zerbitzuen sektorea da sendoena egun, zalantza barik, eta horien artean, ostalaritza da esparrurik garatuena. Esparru horretara adi jarri da Administrazioa ere (Udala, Foru-Aldundia...), eta turismoa garatzeko plangintzan (Percotur) sartua da, dagoeneko, Bakio.

Ondoko orrietan, Siadecok 1998an burututako azterketa oinarri gisa hartuta, lan munduan euskararen egoera zein den aztertuko dugu. Egitasmo haren helburu nagusia, Bakioko gizarte bizitza egituratzen duten eragileen artean, euskararen aldeko dinamika iraunkor bat sustatzea zen, euskararen normalkuntza prozesuan aurrerapausoak emanez. Azterketa nahiz egitasmoaren lehen urratsak gauzatu ziren arren, gerora ez zaio jarraipenik eman, erabat gelditu dago egun.

Banketxeak azterketa hartatik kanpo geratu zirenez gero, hona hemen horien jardura eta ezugarrien gaineko azalpen laburra:

BBKren eta La Caixaren bulego bana daude Bakion; bertako zuzendari eta langileak euskaldunak dira, hala ere, BBK-ko beharginetako batek gaztelaniaz dihardu beti.

BBKtik bezeroei eta, oro har, herritarrei zabalduko informazio komertziala, publizitatea, eta abar, ele bietan egin ohi da, gaztelaniaren nagusitasun puntu bat izaten den arren. Diru-mugimenduei buruzko estraktoak, ostera, gaztelania hutsez helarazten zaizkie bezeroei. Kutxazain automatikoak eleanitzetan jarduteko aukera eskaintzen du, euskara barne.

La Caixatik bezeroei eta, oro har, herritarrei zabalduko informazio komertziala, publizitatea, eta abar, gaztelania hutsez egin ohi da. Diru-mugimenduei buruzko estraktoak, ostera, ele bietan helarazten zaizkie bezeroei. Kutxazain automatikoak eleanitzetan jarduteko aukera eskaintzen du, euskaraz izan ezik.

Bulegootako hizkuntza paisaiari dagokionez, iragarkiak, mezuak, eta abar ele bietan egon ohi dira, hala ere, hemen nabarmena da gaztelaniaren aldeko tratamendua (kokapena, letra mota eta tamaina...), La Caixan are nabarmenago.

"EUSKARAREN HITZARMENA" EGITASMOAREN HELBURUAK

Lehen mailako helburuak:

- Jarduera-mota desberdinetako partaide, enplegatu eta langileen euskarazko gaitasuna hobetzea.
- Euskaldunen kopurua handitzea
- Euskaldunak idatzizko erabilpenetan trebatzea

- Ahozko erabilera areagotzea: euskaldunek eta ikasten ari direnek euskara erabil dezaten giroa eta estimuloak sortzea.

- Euskararen ageriko erabilpena orokortzea.

Bigarren mailako helburuak:

- Elkarte eta jarduera ekonomikoen barne- nahiz kanpo-harremanak euskaraz garatuko zituen erakunde-sare bat sortzea.

- Udalerriz gaindiko erakundeetan eragitea (federazioak, denda-kateak, Bizkaiko Foru Aldundia...)

Jarraipen-lanaren helburuak:

- Lortutako hitzarmenen betetze-maila ikuskatzea.

- Hartutako konpromisoak bete daitezen lortzea eta berriak onar zitezen motibatzea.

- Aukera dagoenean, hitzarmen berriak lortzea.

EGITASMOAREN URRATS NAGUSIAK

- 1.- Prentsaurrekoa, komunikabideei egitasmoaren nondik norakoak emanez
- 2.- Datu bilketarako materialen, hitzarmenen eta eskaintzen definizioa, Bakioko Euskara Zerbitzuarekin batera
- 3.- Kanpo lana bideratuko zuten bisitarien prestaketa
- 4.- Jarduera ekonomiko eta elkarte guztietara gutunak bidaltzea
- 5.- Egitasmoaren lehen fasea: jarduerak eta elkarteak bisitatu, egitasmoa eta Udalaren eskaintzak aurkeztu, datuak jaso
- 6.- Egitasmoaren 2. fasea: hitzarmengintza, 2. elkarrizketa. Hitzarmenak adostu eta euskara arduradunak i zendatu
- 7.- Datuen prozesaketa eta irakurketa
- 8.- Txostenaren idazketa

METODOLOGIAREN KONTZEPTU GILTZARRIAK

Autoinplikazioa

Herritarrak eurak dira, komentzimenduz, hizkuntz normalizazio-prozesuan inplikatu behar direnak. Oinarria, aldeko borondatea eta motibazioa dira. Azken batean, esparrua zein den ere, ezinbestekoa izango da prozesu hau barrutik bultzatzea.

Mailaketa

Pertsona edo erakunde bakoitzaren egoera da oinarri eta egoera horren arabera planteatzen dira eskaintzak nahiz eskaerak. Bakoitzari eman dezakeena eskatzen zaio.

Jarraipena

Ez da kanpaina bat, egitasmo bat baizik. Egitasmoaren arrakastaren giltzarria, ostera, jarraipena da: urratsez urrats, egoera hobetu eta une bakoitzean egon daitezkeen aukera berriez baliatzeko, interbentzio iraunkorra.

HITZARMENA HELBURU

"Kontzeptu horiek hitzarmen batean gauzatzen dira. Hitzarmenaren bidez, elkarte edo establezimendua hizkuntz normalizazio-prozesuan autoinplikatu egiten da, bere egoeraren araberako konpromezu mailakatuak onartuz eta Udal Euskara Zerbitzuaren osteko jarraipena onartuz. Horren truke, Udalak eskaintza eta aukera zenbait zabaltzen dizkio".

- Erakunde desberdinen inplikazioa bilatzen zen.
- Konpromiso zehatz eta bideragarriak "eskaini" zitzaizkien.
- Hitzarmen mailakatuak ziren.
- Baliabide pertsonal eta ekonomikoak, normalizazio-prozesuan aurrerapausoak emateko prest agertzen zirenei eskaini zitzaizkien.

Egitasmoa bideratzeko elkarrizketa pertsonalizatuak burutu ziren, ondoko urrats metodologikoak egikaritzuz:

- Egitasmoari buruzko informazioa zabaldu.
- Datuak bildu.
- Motibazioa landu.
- Autoinplikazioa lortu.
- Hitzarmena sinatu eta elkarte/erakundeen kasuan euskara arduraduna izendatu.
- Jarraipeneko bideak zabaldu.

Jarduera ekonomikoen eta elkarten ezaugarriak oso desberdinak direla kontutan izanik, esparruka egokitutako hitzarmenak eskaini ziren.

JARDUERA EKONOMIKOEI LUZATUTAKO ESKAERA, HITZARMEN ETA PROPOSAMENEN MAILAKETA

- a). **Errotulua** euskaraz jartzeko konpromisoa (establezimenduaren kanpoaldeko errotulurik izan ez edota, izan arren, erdaraz zuten establezimenduei).
- b). Egindako **Itzulpenak** establezimenduan jartzeko konpromisoa (egitasmoa garatu bitartean itzulpenen bat eskatu eta eman zuten guztiei).
- c). **Euskarazko klaseak:**
 - 1. Euskalduntze/alfabetatze ikastaroak: arduradun eta enplegatuen artean erdaldun edo euskaldun alfabetatugaberen bat zutenei.
 - 2. Ordu-tegi murrizteko ikastaroak: arduradun eta enplegatuen artean erdaldun edo euskaldun alfabetatugaberen bat zutenei.
 - 3. Merkataritzako euskara teknikoak: euskaldun alfabetatu eta alfabetatugabeei.
- d). **Ageriko errotulu eta idazkietan** euskararen presentzia bermatzeko konpromisoa: establezimendu guztiei.

Bigarren elkarrizketa hartan, lehendik eskatutako itzulpenak eman, eta hala behar zuten jarduera ekonomikoetan itzultzeko testu gehiago jaso zen.

Elkarte eta erakunde bakoitzaren hizkuntza gaitasuna eta erabilera mailaren arabera eskaera, hitzarmen eta proposamenen mailaketa honakoa izan zen:

- a). **A eredua:** Euskararen presentzia idatzizko elementuetan eta ahal den guztietan ahozko erabilera euskaraz zein gaztelaniaz gauzatzea.
- b). **B eredua:** Euskararen presentzia idatzia eta ahozko harremanetan euskarari lehentasuna eman. 12 urtetik beherako umeei zuzendutako ekintzak euskara hutsean burutu.
- c). **D eredua:** Ahozko eta idatzizko harreman guztiak euskara hutsean bideratu.

Elkarte eta erakundeei bereziki azpimarratu zitzaien:

- Hitzarmena zuzendaritza mailan onartzea komeni zela.
- Hitzarmenen jarraipenerako euskara arduraduna izendatu behar zela.
- Hitzarmena konpromiso orokor modura ulertu behar zela; eta egitasmoak aurrera egin ahala, konpromiso hori zehaztu egingo zela jarduera/elkarte eta Euskara Zerbitzuaren artean.
- **Udala bideratzen ziharduen egitasmo hau ez zela kanpaina isolatu bat, jarraipena izango zuen egitasmo bat baizik. (hau ez da gerora bete).**

Elkarte eta erakundeei ere, jarduera ekonomikoei bezala, Udalak egitasmoaren barnean luzatutako eskaintzak aurkeztu zitzaizkien:

- Itzulpen zerbitzua doan.
- Euskara ikastaroak
- Taldeko inor gai ez izatera, aurkezpenak egiteko aurkezle euskaldunen eskaintza.

Eskaintza hauek aurkezteaz gain, bisitariak, elkarte edo erakunde bakoitzean euskaren erabilera oztopatzen zuten behar eta arazo zehatzak jaso eta identifikatu zituen.

ESPARRUZ-ESPARRUKO HIZKUNTZ EGOERAREN AZTERKETA.

Bakion guztira 75 jarduera ekonomiko zeuden 1998an (baserriak kontutan izan gabe), honela sailkatuta:


28 ostalaritza establezimendu (taberna eta jatetxeak batipat)

23 txikizkako merkataritza establezimendu (horietako gehienak janaridendak)

7 "beste zerbitzuak" direlakoak (tailerrak, inbobiariak eta ile-apaindegiak)

17 bestelako jarduera ekonomiko (eraikuntza alorreko profesionalak, oilo granjak...).

JARDUERA EKONOMIKOAK BERE IZAERAREN ARABERA



JARDUERA EKONOMIKOEN ARDURADUN ETA ENPLEGATUEN HIZKUNTZ GAITASUNA
 JARDUERA MOTARI JARRAIKI¹ (BEHE-DENBORALDIAN), 1998KO URRIA.

	EUSKALDUNAK								ERDALDUNAK		ED/EE		GUZTIRA	
	GUZT	Alfa	Alfabt	Ed/Ee										
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Txikizkako merkataritza.....	39	75,0	11	28,2	28	71,8	-	-	13	25,0	-	-	52	100
Ostalaritza.....	60	56,6	16	26,7	43	71,7	1	1,6	45	42,4	1	1,0	106	100,0
Beste zerbitzuak.....	8	57,1	1	12,5	7	87,5	-	-	6	42,9	-	-	14	100,0
Beste jarduera ekonomikoak.....	40	88,9	2	5,0	35	87,5	3	7,5	5	11,1	-	-	45	100,0
GUZTIRA	147	67,7	30	20,4	113	76,9	4	2,7	69	31,8	1	0,5	217	100,0

Arduradun eta enplegatuetatik %67,7 euskaldunak ziren, 1996ko Erroldako datuekin alderatuta, herritarren batezbestekoaren pare-parekoa, beraz.

Horietatik, %20,4 baino ez ziren alfabetatuak.

Ostalarizako langileen euskararen ezaqupena zen baxuena (%56,6); datu hau garrantzitsua da **Bakioko "langile" guztien ia erdiek (%48,8) ostalaritzan lan egiten dutelako, batetik, eta jarduera honek erabileran duen eraginagatik, bestetik.**

Jarduerarik euskaldunenak, "beste jarduera ekonomikoak" (profesionalak eta granjak nagusiki) eta txikizkako merkataritza* dira, euren arduradun eta enplegatuen %88,9 eta %75,0 hurrenez-hurren euskaldunak baitira. Dena den, "langile" hauen pisu espezifikoak ostalaritzakoena baino nabarmen baxuagoa da: "Beste jarduera ekonomikoetako" langileak, langile guztien %20,7 dira; eta "txikizkako merkataritzako" langileak, Bakioko langile guztien %24.

* Dendarien hizkuntz ohitura, dena dela, gaztelaniaren aldekoa da oso, gehien-gehienak euskaldunzaharrak izan arren. Izan ere, Bakion ohikoa da, euskaldunen artean ere, etxean euskara baina kalean gaztelania erabiltzea nagusiki.


¹ Taula honetan "ulertzen du" erantzun zuten arduradunak erdalduntzat hartu ziren.

ARDURADUN ETA ENPLEGATUEN GAITASUNA

Behe-denboraldian **Bakion** dauden bost jarduera ekonomikoetatik bi baino gehiagotan (%44,8) lan egiten zuten arduradun eta enplegatu guztiak euskaldunak ziren, hau da, jarduera ekonomiko erabat euskaldunak ziren. Eta beste hirutik batean (%35,8) euskaldunak eta erdaldunak aurki zitezkeen, hots, jarduera mistoak ziren. **Guztira, beraz, bost jardueretatik lautan (%80,6) bazegoen harremanak euskaraz garatzeko aukerarik. Gainontzeko %17,9an ez zegoen euskaldunik.**

Jarduera motari dagokionez, "bestelako jarduera ekonomikoen" %70,6, eta txikizkako merkataritza establezimenduen %58,8 erabat euskaldunak ziren. Ostalaritzan, egoitza erabat euskaldunak %19,2 eta mistoak %61,5 ziren.

ARDURADUN ETA ENPLEGATU EUSKALDUNAK JARDUERA MOTARI JARRAIKI (BEHE DENBORALDIAN) ETA 2 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA EUSKALDUNA (%)



IDATZIZKO ELEMENTU ETA ERROTULAZIOAREN AZTERKETA

Azterketa egiteko erabilitako laginak:

Ageriko elementuetan	Barneko elementuetan
- Kanpoko errotulu nagusia	- Faktura
- Toldoan agertzen den izena	- Ordainagiria
- Erakusleihoa / eskaparatea	- Albarana
- Biltzeko papera	- Bezeroentzako biorrikoak
- Poltsak /Kajak (bezeroentzat)	- Bezeroek betetzeko inprimakiak
- Zabalik / itxita txartela	- Barruko lanerako inprimakiak
- Orduategia	- Txartela
- Menuak	- Zigilua
- Merkealdiko kartelak	- Kutxako tiketa
- Barruko iragarpen-kartelak	- Beste inprimaki edo formularioak
- Idazki propioak (bertan egindakoak)	- Informatika programa
- Denda-kateko idazkiak	- Kutxazain automatikoa
- Merkataritza iragarki orokorrak	

Bakioko jarduera ekonomikoek idatzizko elementu gutxi dituzte; jardueren erdiek baino gehiagok duten elementu bakarra, "kanpoko errotulu nagusia" da (jarduera ekonomiko guztien %54,7).

Jardueren ia erdiek iragarpen-kartelak dituzte ere (%49,3).

Jarduera hauen herenek ditu poltsak/kajak bezeroentzat (%36,0) eta bestelako idazki propioak (%34,7) dauzkate.


Euskara gehien agertzen duten elementuak "zabalik/itxita" txartelak, orduategia eta idazki propioak dira, elementu hauen erdiak baino gehixeago elebietan daude; hala ere, "zabalik/itxita" txartelak eta orduategia oso jarduera gutxitan agertzen dira.

Kanpoko errotulu nagusietan, toldoetan agertzen diren izenetan eta merkataritza iragarki orokorretan ere, beste elementuetan baino euskera gehiago erabiltzen da.

Merkealdietako kartel eta menuetan euskararen presentzia urriagoa da.

Jarduera ekonomiko hauen erdiak baino gehiagotan fakturak, txartelak, ordainagiriak, albaranak eta kutxako tiketak besterik ez dauzkate.

Barne elementu hauetan euskararen erabilpena ageriko elementuetan baino nabarmen baxuagoa da, eta gaztelaniaren nagusitasuna ia erabatekoa da. Salbuespen modura aipatu bezeroentzako biorrikoak eta inprimakiak, eta jarduera ekonomikoari lotutako bestelako formulario edo inprimaki batzuk.



1998an, bost jarduera ekonomikatik batean (%21) euskarak gutxienez gaztelaniaren pareko tratamendua jasotzen zuen. Izan ere, jardueren %9an, elementu guztiak elebietan zeuden, eta beste %12an euskara hutsean.

Jardueren heren batean (%32,0) euskarak sarbidea lortua zuen.

Azkenik, jardueren laurden batean (%25) elementu guztiak erdara hutsean zeuden.

Txikizkako merkataritzaren alorrean zeukan euskarak presentziarik altuena: establezimendu hauen heren batean (%34,7) elementu guztiak, bietara edo euskara hutsean zeuden.

*Kontutan izan behar da, zenbait jarduera ekonomikotan ez dagoela inolako idazkirik.

Datuek erakusten dutenez, badago loturarik ageriko elementuen egoera orokorraren eta arduradunaren hizkuntza tipologiaren artean; horrela, arduradun euskaldunen heren batek (%33,3) ageriko elementu guztiak bietara zituen (batezbestekoa %21,3 zen artean); %21,2ak ageriko elementu guztiak erdara hutsean zeuzkan, ostera.


Barruko elementu idatzietan euskararen presentzia urriagoa zen agerikoetan baino: inon ere ez zegoen barruko elementurik bietara edo euskara hutsean.

Barruko elementu idatzien erdiak baino gehiago erdara hutsean zeuden (%61,3).

%38,7an euskarak sarbidea bazuen; ostalaritzan beste jardueretan baino gehiago (%64,3).

BEZERO, ELKARTE ETA ERAKUNDEEKIKO HIZKUNTZ HARREMANAK

Bezeroekiko hizkuntz harremanak




Jarduerotako langile/ arduradunek adierazitakoaren arabera, enplegatu eta bezeroekiko ahozko hizkuntz harremanei dagokienez (behe-denboraldian), jarduera ekonomikoen laurden batean (%25) enplegatuen artean euskara hutsez edo euskaraz gehiago hitz egiten omen zuten. Jardueren %34,4ean enplegatuen artean gaztelaniaz soilik egiten omen zuten berba, ostera

Beste bi harreman-motei dagokienez (enplegatu-bezero eta bezeroen artean), askoz altuagoa zen ahozko harremanak ele bietan edo "erdaraz nagusiki" burutzen zituztenak (>%50), behe-denboraldian, beti ere.

Idatzizko harremanei dagokienez, gaztelaniazko harremana zen nagusi, bai enplegatuen artean, bai enplegatu eta bezeroen artean ere. (Jarduera hauetako arduradun eta enplegatuen alfabetatze maila baxua da, eta jarduerotako inprimakietan ageri den hizkuntza gaztelania, gehienetan).

ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

ERAKUNDEEKIKO EUSKARAZKO HARREMANAK (%)



Bakioko jarduera ekonomikoek erakunde publikoekin zituzten ahozko nahiz idatzizko harremanetan erdara zen eta da hizkuntz nagusia, salbuespen bakar batekin: jarduera hauek Bakioko Udalarekin dituzten ahozko harremanetan. Hauetan, heren batek (%33,8) euskaraz egiten zuen nagusiki eta beste laurden batek (%27) bietara edo euskarari sarbidea emanaz behintzat. Harreman hau erdara hutsez garatzen zuen jarduera ekonomikoen %39,2ak.

Gainontzekoetan, gaztelania nagusi zen (ahozko nahiz idatzizko harremanak gaztelania hutsez gauzatzen zituen jardueren %83k gutxienez).

Eusko Jaurlaritzarekiko harremanetan areagotu egiten da gaztelaniaren aldeko joera.

Bakioko jarduera ekonomikoetako arduradunen %58,6 euskaldunak ziren 1998an, gehienak alfabetatugabeak izan arren. Azken honek azal dezake neurri batean idatzizko harremanetan euskarak hain presentzia urria izatea.

Foru Aldundi eta Jaurlaritzarekin izaten diren ahozko harremanetan euskarak horren presentzia eskasa izateko arrazoiak, batez ere, ondokoak direla pentsa daiteke: batetik, udalaz gaindiko erakundeekin erdara erabiltzeko dagoen ohitura, eta bestetik, erakunde horietan euskararen ezagupena edota erabilera ez dagoela behar bezain zabaldua.

MERKATARITZA ERAKUNDE ETA ELKARTEEKIKO AHOZKO ETA IDATZIZKO HARREMANAK

Jarduera ia guztiek duten harreman bakarra "hornitzaileekikoa" da (71 jarduerak).

Jardueren %4,2ak hornitzaileekin dituen ahozko harremanak euskaraz garatzen ditu nagusiki eta beste %31ak euskarari behintzat sarbidea eman dio. **Ia hirutik bik, beraz, gaztelania hutsez garatzen ditu ahozko harremanak hornitzaileekin.**

Hornitzaileekiko **idatzizko harreman guztiak (%100) gaztelania** hutsez dira.

Gainontzeko erakunde eta elkarteekin harremanak dituzten jarduerak askoz gutxiago dira eta "erdaldunagoak".

Euskararen ahozko erabilera "egiazko" maila

Datu bilketa garaian, bisitariak jarduera ekonomikoetan zeuden **dendari eta bezeroen arteko euskararen erabilpenaren neurketa erreala** burutu zuten, hiru harreman mota hauei buruzko datuak jasoz:

- Jarduerako langileak bezeroekin.
- Jarduerako langileak elkarren artean.
- Bezeroak elkarrekin.

Bisitariak datuak "jardueran" bertan zeuden bitartean jasotzen zituztenez, leku askotan ezin izan dira datuak lortu (bezerorik ez, enplegatu bakarra...). Lortu direnean ere, oso une jakinetan jaso dira eta horregatik **ondoriook hurbilpen orokor modura aztertu behar dira.**

(**Bezero-enplegatu** harremana jardueren erdietan baino gehiagotan entzun da (%56,0); **bezeroen arteko** harremana jardueren %44ean eta **enplegatuen artekoa** %29,3an besterik ez).

Neurketa honen arabera **enplegatuen arteko harremana da euskaldunena**, beste bi esparruetako euskararen erabilpenaren portzentaia erraz gaituzten duelarik. **Bezeroen arteko harremana litzateke, aldiz, erdaldunena.**

Aipagarria da bezero-enplegatu harremanean entzundako bost lagunetik batek (%20,2), sarrera euskaraz egin ondoren, elkarrizketa gaztelaniaz jarraitu duela.

EUSKARAREN AHOZ ETA IDATZIZKO ERABILERARI BURUZKO ERABAKIEI DAGOKIONEZ

Jarduera ekonomiko guztietan euskararen ahozko edo idatzizko erabilerari buruz inoiz erabakiren bat hartu duten galdetuta, lau jardueretatik hirutan (%76) ezetz esan zuten, ez zutela inoiz erabakirik hartu.

Hartutako erabakien artean 8 jarduerak idatzizko erabilerari lotutakoak aipatzen zituzten: "idazki batzuk bietara jarri", "txartela edo errotulua euskeratu"... Eta beste 7k, ostera, ahozko erabilerari lotuagoak: "euskaraz egin", "euskara ikasi"...

Euskararen erabilerak salmentetan izan dezakeen eraginaz itaunduta, Bakioko jarduera ekonomiko hauetako arduradunak oso argiak izan ziren puntu honetan, eta %88ak eragin "baikorra, ona" zuela erantzun zuen.

Euskararen erabilerak salmentetan izan zezakeen eraginaz

	Kop.	%
Onuragarria.....	66	88,0
Ez du eraginik.....	3	4,0
Batzutan ongi/besteetan ez	3	4,0
Ed/Ee.....	3	4,0


Ia guztiek eragin "ona" zuela erantzun zuten; eta inork ez zuen adierazi salmentetan eragin txarra izan zezakeenik. Eragina ona zela erantzun ez zutenen artean (%8), batzuek euskararen erabilerak salmentetan eraginik ez zuela erantzun zuten eta beste batzuek zenbait bezeroren aurrean onerako izan zitekeela eta beste zenbaiten aurrean, ostera, kaltegarria.

Euskara erabiltzeko traba nagusiak

	Kop.	%	
Batere ez	47	62,7	Bost jarduera ekonomikotatik hirutan (%62,7) ez omen zegoen inolako trabarik euskara erabiltzeko. Gainontzekoetan aipatzen ziren arazo edo traba nagusiak "euskararen ezagupen maila eskasa" eta "bezeria erdalduna" izatea ziren.
Ezagupen maila eskasa.....	11	14,7	
Bezeria erdalduna.....	9	12,0	
Besterik	10	13,3	
Eskaerarik/beharririk ez	2	2,7	
Euskaldunek erdaraz jakitea	3	4,0	
Erdal-giroa	3	4,0	
Euskara zaila da	1	1,3	
Enplegatutako eusk. aurkitzeko zailtasunak	1	1,3	
Ed/Ee.....	1	1,3	

EMAITZA OROKORRAK

1998ko urrian, azaldutako eskaintza eta eskakizunak aukeran, Bakion euskararen normalizazio-prozesuari ekiteko prest zeuden jarduera ekonomikoak ondokoak izan ziren:



Hitzarmena sinatzera heldu ahal izateko, ezinbestekoa izan zen informazio eta motibazio-faseak lantzea. **Inplikazio-maila altua lortzeko, oso lagungarriak izan ziren:**

- Arduradunei zuzendutako gutunak eta landa-lan fasean parte hartu zuten bisitariak emandako azalpenak.
- Arduradunak motibatuzeko, Udalaren eskaintzak zabaltzea, batez ere itzulpen maketatuen.
- Informazio/motibazio fasea eta motibazio/inplikazio faseak bereizi izana eta establezimendu bakoitzera birritan joan izana.

Ez zen lotura zuzenik agertu jarduera ekonomikoetako arduradunen hizkuntz tipologia eta lortutako hitzarmen mailaren artean. **Izan ere, hitzarmen maila oso altua izan zen hizkuntz tipologia zein zela ere.**

"Beste jarduera ekonomikoak" atalean ez, gainontzeko jarduera motatan hitzarmen-portzentaia oso altua izan zen. Kontuan izan behar da gainera, egitasmoaren eskaintza nagusiak txikizkako merkataritza eta ostalaritzaren beharretara egokitzen zirela zuzen-zuzenean (itzulpen zerbitzua, merkataritza-euskara ikastaroa...) eurak direlako Bakioko euskararen normalkuntza prozesuan eraginik nabarmenena duten jarduera ekonomikoak, eta ez horrenbeste "beste jarduera ekonomikoen" beharretara (elektrikariak, arotzak, igeltseroak, abere-granjak...).

ESKAINTZAK ETA KONPROMISOAK

Bakioko jarduera ekonomikoetako arduradunen artean interes gehien piztu zuen eskaintza/konpromisoa, "ageriko errotulu eta idazki guztietan euskararen presentzia bermatzeko konpromisoa" izan zen, hitzarmena sinatu zuten jarduera guztien %90,2ak berretsi zuena.

Oso harrera ona izan zuen **itzulpen zerbitzuak** ere, hitzartutakoen %68,9ak erabili baitzuen itzulpen zerbitzua. Izan ere, puntu honek badu aurrekoarekin zerikusirik.

Jarduera ekonomikoen %14,8ak (9 jarduera ekonomiko) azaldu zuen bere arduraduna edo enplegaturen bat euskarazko ikastaroren batean matrikulatzeko interesa, eta jardueren %4,9ak (3k) errotulua euskaraz jartzeko/berritzeko asmoa.

Itzulpen zerbitzuak arrakasta handiagoa lortu zuen txikizkako merkataritza eta ostalaritza jardueren artean, beste zerbitzu eta gainontzeko jarduera ekonomikoetan baino (datu hau bat dator arestian aipatutakoarekin, egitasmo honen eskaintza nagusia egokiagoa baitzen merkataritza establezimenduen beharretarako, beste zerbitzu edo jardueren beharretarako baino).

Arduradunaren hizkuntz-tipologiaren arabera, ez zen egon alde handirik onartutako hitzarmen motari dagokionez.

Itzulpen eta materialen eskaintza

42 jarduerak eskatu eta jaso zituzten itzulpen zehatzak edota materiala euskaraz. Eskaintza hau egitasmoaren ardatz nagusienetako bat zen, jarduera ekonomikoetako -eta batipat merkataritza eta ostalaritza alorreko- "paisaia linguistikoa" alda zezakeelako. Aldaketa horrek gainera, bezeroak euskaraz egitera bultzatuko zituen.

Honako elementuok eskatu ziren: idazki propioak, ordutegiak eta menuak. Menuak, establezimenduaren eskaintza nagusiarekin duen zerikusiarengatik eta bezeroari proiektatzen dion irudiarengatik garrantzitsuak dira, eta aipatzekoa da 11 menu euskaratu zirela.

Idazki propio edo barruko iragarpen kartelen kasuan hobekuntza nabarmena izan zen egitasmoan zehar, euskaraz zeuden idazkiak %49,2 izatetik, %70,8 izatera pasa baitziren.

Menu eta ordutegiei dagokienez ere, hobekuntza handia izan zen, euskaraz zeudenak %20 inguru izatetik %80,0 izatera pasa baitziren.

ONDORIO NAGUSIAK

Jarduera ekonomiko hauetako bost arduradunetatik ia hiru (%58,6) euskaldunak ziren 1998an. Bestalde, euskara ulertzeko gai zen arduradunen %16 eta erdalduna %24, ostera. Adinaren arabera, **40 urte edo gehiago zuten arduradunen euskararen ezagupena 40 urtetik beherakoena baino altuagoa zen** (%65,1 eta %50,0 hurrenez-hurren).

Jarduera ekonomikoetako **enplegatuen euskararen ezagupena %72,5ean kokatzen zen** (behe-denboraldian), arduradunena baino 14 puntu gorago, beraz. Jarduereetako arduradun eta enplegatuen euskararen ezagupena orokorrean aztertuta, hirutik bi (%67,7) euskaldunak ziren.

Jarduerarik erdaldunena ostalaritza da, bertako arduradun eta langileen %56,6 besterik ez baitzen euskalduna. Datu hau garrantzitsua da, ostalaritzan lanean dabiltzalako azterketaren helburu ziren "langile" guztien ia erdiak (%48,8).

Bakioko bost jarduera ekonomikotatik lautan bazen harremanak euskaraz gauzatzeko aukerarik (%80,6). Horietatik, %44,8 jarduera erabat euskaldunak dira, eta beste %35,8 mistoak.

Euskararen idatzizko erabilerari dagokionez, bost jarduera ekonomikotatik batean (%21) euskarak gutxienez gaztelaniaren pareko tratamendua jasotzen zuen ageriko elementuetan. **Jardueren heren batean (%32) euskarak sarbidea lortua zuen,** eta laurden batean (%25) elementu guztiak erdara hutsez zeuden.

Barruko elementu idatzietan euskararen erabilpena baxuagoa zen eta ez zegoen bere elementu guztiak bietara zituen jarduerarik. Horrela, jardueren %38,7ak euskararik sarbidea emana bazion ere, %61,3ak elementu guztiak erdara hutsez zituen.

Euskara gehiago erabiltzeko konpromisoren bat hartu zuten jardueren kopurua altua izan zen, 61 izan baitziren hitzarmena sinatu zutenak (%82,4). Lortutako hitzarmen maila altua izan zen arduradun nahiz jarduera motari erreparatuta ere. Salbuespen bakarra "beste jarduera ekonomikoak" alorrean lortutako hitzarmen portzentaia baxua (%35,3) izan zen.

Jardueretako arduradunek sinatutako hitzarmen motari dagokionez, **interes gehien piztu zuen eskaintza/konpromisoa "ageriko errotulu eta idazki guztietan euskararen presentzia bermatzeko konpromisoa" izan zen,** hitzarmena sinatu zuten jarduera guztien %90,2ak sinatu baitzuen. **Oso harrera ona izan zuen itzulpen zerbitzuak ere, (hitzartutakoen %68,9ak erabili zuten).**

4-AISIA/ KIROLA/ ERLIGIOA

BAKIOKO HERRI-ELKARTE ETA ERAKUNDEAK (1998ko urrian)

KULTUR ELKARTEAK	5	%38,4
BAKIOKO ABESBATZA		
BAKIOKO KULTUR ETXEA/LIBURUTEGIA		
ITXAS ALDE DANTZA TALDEA		
MUSIKA ELKARTEA (MUSIKA ESKOLA)		
URKITZA IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA		
KIROL ELKARTEAK	4	%30,8
ALAITASUNA PILOTA TALDEA		
BAKIOKO KIROL TALDEA		
BAKIOKO SURF TALDEA		
GAUEKA KIROL TALDEA		
ERLIJIO TALDEAK.....	1	%7,7
ATSEDEN ELKARTEAK.....	1	%7,7
GURE ETXEA (JUBILATU ETA PENTSIODUNAK)	1	%7,7
URKITZA IKASTETXEA.....	1	%7,7
AEK EUSKALTEGIA		

Elkarte eta erakundeak, berez 11 ziren arren, eskolorduz eta lanorduz kanpoko jarduerak aztertzeke garaian kontutan hartu ziren Urkitza Ikastetxea eta Bakioko AEK-k antolatzen zituzten jarduerak, ikuspegi osotuagoa izatearren, alabaina, ez zen Turismo bulegoa azterketan sartu.

Ondoko elkarteak ez daude 98ko azterketan jasota:

BTT: Jata Bike Txirrindulari Taldea
Ehiza eta arrantza: Sociedad de Caza y Pesca de Bakio
Futbito: Atxurre Futbito Taldea
Arrantza: Arrapala Taldea
*Tenis: Club Kiroleta -
Piraguismoa: Club Itxas-Ondo
Turismo bulegoa
Bakio Astronomi Taldea
*Euskera Batzordea
*Gure Etxea
Mahasti-Alde (Bakioko txakolina bultzatzeko sortua)
Marta-Txori Bakioko Andra Alkartea
* Bide Zabal Txokoa
* Eleizpe Txokoa
* Bitz Gane Txokoa

*: elkarteok, izan baziren 98an; markabakoak 98tik 2002ra arteko epean sortuak dira.

ELKARTE ETA ERAKUNDEETAKO KIDEEN EUSKARAZKO GAITASUNA

Informazioa batzeko garaian, ondorengo barne antolaketa mailak bereiztu ziren:

- Lehendakaria
- Idazkaria
- Zuzendaritza Batzordea
- Bazkideak

Pertsona bera, elkarte edo jarduera bat baino gehiagoko partaide izan daiteke aldi berean, beraz, azterketaren datuak "kasuak" aintzakotzat hartuta jaso ziren, ez gizabanakoak.

LEHENDAKARI/ZUZENDARIAREN HIZKUNTZ GAITASUNA (1998KO URRIA)

Euskaldun alfabetatua	Euskaldun alfabetatu gabea	Zerbait daki	Erdalduna	Ed/ee	GUZTIRA
4	4	2	-	1	11

Bakioko elkarte gehienetako lehendakariak euskaldunak ziren (11tik 8), eta horietatik erdiak alfabetatuak.

Ez zegoen lehendakari bat bera ere, erabat erdalduna denik.


IDAZKARIEN HIZKUNTZ GAITASUNA

Euskaldun alfabetatua	Euskaldun alfabetatu gabea	Zerbait daki	Erdalduna	Ed/ee	GUZTIRA
6	4	-	-	1	11

Elkarte guztietako idazkariak euskaldunak ziren (bati buruzko datuen faltan). Erdiak baino gehiago euskaldun alfabetatuak, gainera.

ZUZENDARITZA BATZORDEETAKO KIDEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

ZUZENDARITZA BATZORDEETAKO KIDEEN EUSKARAREN EZAGUPENA (%)



Zuzendaritza Batzordeetako partaideen euskararen ezagupena altua zen (%76,5 euskaldun). (1996ko Erroldako datuen arabera euskaldunen portzentaia %66,9koa da).

Zuzendaritza Batzordeetako kide hauen alfabetatze maila baxua bazen ere, (euskaldunen %35,9) aurretik ikusi dugun jarduera ekonomikoetako arduradun eta enplegatuen baina nabarmen altuagoa da.

Elkarte guztietako Zuzendaritza Batzordeetan euskaldunen bat dago, eta guztietan (batean izan ezik) euskaldun alfabetaturen bat ere.

BAZKIDEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

Aurkeztuko diren datuen inguruan kontuan izan behar da Bakion dagoen elkarterik handienak (Bakio Kirol Taldea), bazkide kopuru zehatza aipatu badu ere, ez duela euskaldun eta alfabetatuen portzentaia eskaintzerik izan; horrek, bazkideen euskararen ezagupenaren datu orokorra asko baldintzatu eta desitxuratzen zuenez, bazkideei dagokien taula, elkarte horretako kideak sartu gabe osatuko zen. Hau da, datu zehatzak eta osatuak eskaini dituzten elkarten informazioa baino ez zen erabili.


"Bazkide" izenpean, elkarte eta erakunde hauetan parte hartzeko modu desberdinak bildu ziren: taldeetako partaideak, elkarten kuota ordaintzen duten bazkideak, etab.

Bestalde, Bakioko elkarte hauen artean bik bazkiderik ez dute biltzen: Elizak eta Bakioko Kultur Etxeak, hain zuzen ere.

BAZKIDEEN HIZKUNTZ GAITASUNA

Euskaldun alfabetautak		Euskaldun Alfabetatu gabeak		Erdaldunak		GUZTIRA	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
216	30,2	357	50,0	141	19,8	714	100,0

BAZKIDEEN HIZKUNTZ GAITASUNA (%)



Bazkide euskaldunen portzentaia Zuzendaritza Batzordeetako kideena baino altuxeagoa zen, eta Bakioko hiritarren batez bestekoa baino dexente handiagoa (ia 13 puntu).

Alfabetatze mailari dagokionez, bazkide alfabetatuak Zuzendaritza Batzordeetako kideen alfabetatze maila baino apur bat handiagoa zen.

ELKARTEAK BAZKIDEEN HIZKUNTZ GAITASUNAREN ARABERA	Kopurua	%
Bazkide guztiak euskaldunak (%100).....	1	9,1
Bazkide euskaldunak %76-%99 artean	5	45,4
Bazkide euskaldunak %51-%75 artean.....	1	9,1
Bazkide euskaldunak erdiak baino gutxiago	1	9,1
Bazkiderik/erantzunik ez.....	3	27,3

EUSKARAREN ERABILERA ELKARTE ETA ERAKUNDEETAN

Euskararen erabilera ageriko elementuetan	Dena ala ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Elebidun	Gehiena euskaraz	Dena ala ia dena euskaraz	Guztira	Bietara + euskaraz %
Erantzungailua	1	-	-	-	-	1	0,0
Elkartean ipintzen den musika (zintak,diskoak...)	-	1	1	1	2	5	80,0
Elkartean ipintzen den irratia	-	1	-	1	1	3	66,7
Elkartean ipintzen den telebista	-	1	-	-	-	1	0,0
Bideoak	-	1	-	-	-	1	0,0
Elkartearen errotilu nagusia	-	-	-	-	4	4	100,0
Kartel eta oharrak elkartean (sartzerakoan ikusten direnak) Elkartearen zigilua	-	1	4	-	4	9	88,9
Menbretea gutunerako orrietan	1	1	-	-	8	10	80,0
Elkartearen gutunazalak	1	2	-	-	4	7	57,1
Elkartearen gutunazalak	-	2	1	-	2	5	60,0
Salmentarako ateratako produktuak (kamisetak, pegatinak...)	-	1	2	1	4	8	87,5

Bakioko elkarte gehienek **ageriko ahozko elementu gutxi** darabilte, eta darabiltenen artean, **musika eta irratia dira** euskarari tarterik handiena eskaintzen diotenak. Gainontzekoetan gaztelania gehiago erabiltzen da (elementu horiek oso elkarte gutxitan erabiltzen diren arren).

Ageriko elementu idatziak: elkarte gehienek bazituzten kartelak, zigiluak, menbretedun orriak, etab. edota salmentarako produktuak (kamisetak, pegatinak...). **Idatzizko elementu hauetan euskarak presentzia handiagoa zuen ahozkoetan baino, eta elebietan edo euskaraz dauden elementuak gaztelaniaz daudenak baino gehiago ziren.**

EUSKARAREN ERABILERA BARNE-HARREMANETAN

AHOZ	Dena ala ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Elebidun	Gehiena euskaraz	Dena ala ia dena euskaraz	Guztira	Bietara + euskaraz %
Zuzendaritza Batzordeko bileretan	1	1	4	-	3	9	77,8
Bazkideen bileretan (asanbleak...)	2	5	3	-	1	11	36,4
Besterik	1	-	1	-	-	2	50,0
IDATZIZ							
Erakunde barruko idatziak (aginduak, zirkularrak, barne-oharrak...)	-	3	5	-	1	9	66,7
Barruko inprimaki/formularioak	-	1	2	-	1	4	75,0
Bileretako gai-zerrendak	-	4	1	-	3	8	50,0
Bileren aktak	2	4	-	1	3	10	40,0
Estatutuak/arautegiak	5	3	-	1	-	9	11,1
Proiektuak/Memoriak	-	2	1	-	1	4	50,0
Besterik	-	1	-	-	-	1	0,0

Zuzendaritza Batzordeetako bilera gehienak euskaraz edo elebietan egiten baziren ere, bazkideen bilera gehienak gaztelaniaz (hutsez edo nagusiki) ziren.

Bi elkartek bileretako gai-zerrendak eta aktak euskaraz egiten zituzten erabat edo ia erabat (Alaitasuna Pilota Taldea eta Udalaren menpe dagoen Kultur Etxea/Liburutegia), eta sei erakunde barruko idatziak (aginduak, zirkularrak, barne-oharrak, etab.) euskara hutsean edo bietara egiten zituzten (aurreko biak gehi Itxas Alde, Eliza, Musika Eskola eta Urkitza Ikastetxeko Guraso Elkarte).

EUSKARAREN ERABILERA KANPO-HARREMANETAN

AHOZ	Dena/ia dena erdaraz	Gehiena erdaraz	Ele bietan	Gehiena euskaraz	Dena/ia dena euskaraz	GUZTIRA	Bietara + euskaraz %
Telefono harrera.....	-	-	2	-	3	5	100,0
Udalarekin.....	-	-	5	1	-	6	100,0
Beste erakunde publikoekin (Diputazioa, Eusko Jaurlaritza.....)	2	3	2	-	1	8	37,5
Finantza erakundeekin	1	2	3	-	3	9	66,7
Federazioarekin.....	3	3	2	1	-	9	33,3
Beste herri elkarteekin	1	1	1	2	1	6	66,7
Bilera irekietan (gurasoekin, herritarrekin.....)	1	2	4	-	1	8	62,5
IDATZIZ							
Udalarekin.....	1	3	4	-	3	11	63,6
Beste erakunde publikoekin (Diputazioa, Jaurlaritza.....)	3	3	3	-	1	10	40,0
Finantza erakundeekin	3	4	2	1	-	10	30,0
Federazioarekin.....	3	2	3	-	1	9	44,4
Beste herri elkarteekin	1	1	1	-	2	5	60,0
Herritar/erabiltzaleekin (gutunak, ohar personalizatuak.....)	1	-	6	-	1	8	87,5
Elkartearen argitalpenak (liburuak, artiku).....	1	-	3	1	3	8	87,5

Elkarteek gauzatzen dituzten ahozko kanpo- harremanetan ere, euskarak nahikoa presentzia dauka, elementu askotan hizkuntz tratamendua elebietan egiten delarik. **Erdaldunenak, beste erakunde publikoekin dituzten harremanak** (Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, etab.) **eta Federazioekin dituzten harremanak dira**. Gainontzeko elementuetan ahozko euskararen presentzia nagusi da.

Idatzizko kanpo-harremanetan **euskararen presentzia apur bat baxuagoa da**, erdaraz bakarrik edo nagusiki bideratzen diren harremanak gehixeago dira eta.

EUSKARAREKIKO JARRERA

Elkarrizketatutako elkarte eta erakundeetan, ordura arte, euskararen alorrean **erabakiren bat hartua ote zuten galdetuta**, erantzunak hauek izan ziren: 7 elkartek ezer erabaki ez zutela, eta 4k, zegoeneko, erabakiren bat hartua zutela erantzun zuten.

Hartutako erabakien adibide gisa:

"gurasoak euskara ikastaroetan parte hartzera animatu"

"euskara erabiltzeko ahalegina egiteko esan jendeari"

"ahalik eta eskaintzarik handiena euskaraz eman"

"euskararen erabilera bultzatu eta areagotzea"

Ordura arte erabakirik hartu ez izanak, ez du esan nahi euskara erabiltzen ez zenik, eta baziren erabakirik hartu gabe ere, euren eguneroko jardunean euskara dextente erabiltzen dutenak.

Erabakiren bat hartua zuten elkartezi, **zer lortu zuten galdetuta, horra hiru elkarteren erantzunak:**

"barruko harremanak euskaraz finkatzea"

"batzuegan kontzientzia sortu"

"guraso batzuen atxikimendua"

Euskararen erabilerari zegoen zegoenez, **aurkitu zituzten behar eta zailtasunik handienak** zeintzuk ziren galdetuta, 7 elkartek erantzun zuten. Horra aipatutako arazorik nabarmenenak:

- Ezagutzari zegozkionak: "irakasleek euskaraz ez jakitea", "zenbaitek euskaraz ez jakitea", "tarteetan erdaldunak egotea"...

- Erabilerari lotutako arazoak: "jendeak duen erdararako joera", "gazteek euskara ez erabiltzea, jakin arren", "gazteekin beti dinamika berbera: guk euskaraz, eurak gazteleraz"

- Irakasle/Monitore euskaldunak aurkitzeko zailtasunak.

- Jarrerari lotutako arazoak: "guraso batzuen axolagabekeria"

Udal Euskara Zerbitzuak zertan lagun ziezaiekeen galdetuta, horra erantzunik errepikatuenak:

"gurea bezalako hizkuntza-egoera daben herrietako elkarten egoeraren barri emonez, besteak beste"

"euskararen aldeko irizpideak garbi finkatuz"

"kontzientzazio lanetan"

"gazteekaz daukagun arazoa zelan edo halan konpontzen. Kultur Etxera datozenei euskaraz egiten "lagundu", kate luze bat lortzeko", "material idatzia euskaldunduz" ,...

"euskararen aldeko dinamika sortuz".


"inguru eta joera erdaldunen aldaketan eragiten"

BAKIOKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEN SAILKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA (1998)				ARAZOA
EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA ALTUA	<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritza Bazkideen euskararen ezagupena ≥ 75 Partaideen ezagupena ≥ 75 Monitoreen ezagupena ≥ 75 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera nagusia: <ul style="list-style-type: none"> Ahoz euskara nagusi Idatziz ia dena elebidun edo euskaraz 	<ul style="list-style-type: none"> Itxas Alde Dantza Taldea Alaitasuna Pilota Taldea Bakioko Eliz Erakundea Gaueka Urkitzako Guraso Elkarte Bakioko AEK Urkitza Ikastola Kultur Etxea (ipuin kontalaria, jolas tailerrak eta "bizkaiera-ren etorkizuna" hitzaldia) 	<ul style="list-style-type: none"> Erdarazko inertzia orokorra eta batipat gazteen erdarazko inertiak
		<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera "baxua": <ul style="list-style-type: none"> Ahoz elebietan baina erdara erabiltzen duten guneak dituztelarik Idatziz ia dena elebidun 	<ul style="list-style-type: none"> Bakioko Abesbatza Musika Eskola Gure Etxea Kultur Etxea (Gabonetako Jolas Parkea, Gazte erromeria, Aerobic, Zeramika tailerra) 	<ul style="list-style-type: none"> Erdarazko inertiak Irakasleen ezagupen/trebatze falta
EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA BAXUAGOA	<ul style="list-style-type: none"> Ezagupena < 75 	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera elebiduna: <ul style="list-style-type: none"> Idatziz ia dena elebidun Ahoz elebietan baina erdara erabiltzen duten guneak dituztelarik 	<ul style="list-style-type: none"> Kultur Etxea (Ingurugiro tailerrak, gimnasia, marrazkigintza, ingelesa...) 	<ul style="list-style-type: none"> Irakasleen ezagupen falta Erdarazko inertiak
		<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera "baxua": <ul style="list-style-type: none"> Idatziz erdaraz gehiago 	<ul style="list-style-type: none"> Bakio Kirol Taldea Bakio Surf Taldea Kultur Etxea (Saskigintza, Saloi dantzak, "Emakumea eta autoestima hitzaldia", diaporama saioa) 	<ul style="list-style-type: none"> Bazkideen ezagupen eskasa Erdarazko inertzia Monitoreen ezagupen falta

Aurreko orriko taulan ikus daitekeenez, elkarte gehienetako euskararen ezagutzamaila batezbestekoaren gainetik zegoen. Erabilerari erreparatuta zera esan daiteke: bere kide guztiak edo ia guztiak euskaldunak izan arren zaila dela erabat euskaraz funtzionatzen duen elkarterik aurkitzea. Elkarte hauetan euskaraz ez egitearen arrazoia gazteek (batipat) erdaraz hitz egiteko duten joeran datza. Hala ere, Bakioko AEKren eta Urkitza Ikastetxearen funtzionamendua euskara hutsezkoa dela esan daiteke (salbuespenak salbuespen). Kultur Etxeak antolatutako hainbat jardueratan ere, euskararen ahozko erabilera oso nabarmena da. Arazo nagusia, partaideen gaztelaniarekiko joeraz gain, irakasle edo monitorean euskarazko gaitasun falta da.

ESKOLORDUZ ETA LANORDUZ KANPOKO JARDUERAK


Azterketa hau egiteko, Bakioko 11 elkarte eta erakunde, Urkitza Ikastetxeak eta Bakioko AEK Euskaltegiak antolatzen dituzten era guztietako 51 jarduerari buruzko informazioa jaso zen. Adierazitako kopuruak ez zegozkien pertsoneri, kasuei baizik. Jarduera horietako eragileen euskararen ezagupena (antolatzaille, monitorea eta partaideena) honakoa zen, jardueran esku hartzen dutenen adinaren arabera:



Bakion antolatzen ziren **jardueren erdiak baino gehiago (%58,8) haur eta gazteei (<25 urte), eta %37,2 helduei zuzenduriko jarduerak dira (>25 urte).** Ekintza irekiak, adin edota bestelako mugarik ezartzen ez zutenak (zine emanaldia, azoka..), bi besterik ez ziren.

Partaideen %82,1, antolatzailleen %83,9, eta monitorean %88,6 euskaldunak ziren azterketa burutu zen garaian.

JARDUERAREN PRESTAKETAN DARABILTEN EUSKARA (AHOZ) (%) -1998-



Orokorrean jarduera hauetan euskarak presentzia zabala duela esan daiteke, bai ahoz eta bai idatzizko elementuetan, jarduera gehienak euskaraz (soilik edo gaztelaniarekin batera) garatzen baitziren eta dira.

Jardueraren partaideen arteko harremanak ziren eta dira, alde handiz gainera, arlorik erdaldunena; 15 jardueratan gehiena erdaraz egiten omen zen eta 2tan bakarrik ia dena edo dena euskaraz. Datu honek adierazten digu praktikan ia ez dagoela euskaraz "prestatzen" den jarduerarik.

Beraz, elkarteen euskararen aldeko apustua argia izan arren, eguneroko ahozko hizkuntza jarduna normalizaziotik oso urrun dago.

EMAITZA OROKORRAK

HITZARMENA	GUZTIRA
"A" HITZARMENA	1
- Bakio Surf Taldea	
"B" HITZARMENA	4
- Bakio Kirol Taldea	
- Bakioko Eleiz Erakundea	
- Gure Etxea	
- Urkitza Ikastetxeko Guraso Elkarte	
"D" HITZARMENA	6
- Itxas-alde Dantza Taldea	
- Alaitasun Pilota Taldea	
- Gaueka	
- Bakioko Abesbatza	
- Urkitza Ikastetxea	
UDAL ERAKUNDEA	2
- Kultur-Etxea/Liburutegia	
- Musika Eskola	
GUZTIRA	13

Bakioko elkarte eta erakunde guztiek egin zuten bat "Euskararen Hitzarmena" egitasmoarekin.

Hitzarmenen mailaketak lotura zuzena agertzen zuten erakunde hauen errealitate soziolinguistikoarekin.

Udalaren menpeko erakundeei ez zitzaien hitzarmena sinatzea eskaini, Udalak berak zehaztutako hizkuntz politika jakin batean oinarri zezaketelako euskararen erabilpena.

HITZARMENAK BETETZEKO GIZA-BALIABIDEAK

Elkarte guztiek sinatu zuten hitzarmenen bat, eta ondorioz denek izendatu zuten euskara arduradun bat. Pertsona hori oso garrantzitsua izan behar zen hitzarmengintzaren jarraipenari begira, eta berak behar zuten Bakioko Euskara Zerbitzuaren solaskidea.

Eskolorduz kanpoko jarduerak antolatzen zituzten 11 elkarteetatik, 9tan bazegoen erdaratik euskarara itzultzeko gai zen pertsonarik. (Pertsona gaiturik ez zutenak Bakioko Kirol Taldea eta Gure Etxea baino ez ziren).

Hamar elkartetan ("Gure Etxean" ez) aurkezpen publikoak euskaraz egiteko gai zen pertsonarik bazegoen.

Datu hauek kontutan izanik, ez dirudi elkarte eta eskolorduz kanpoko jarduera hauetan euskararen erabilera (maila formaletan behintzat), normaltzeko arazorik dagoenik. Beste kontu bat izango da jarduera hauetako partaideek erdaraz egiteko duten inertzia gainditzea.

1998ko azterketa zein hitzarmen proposamenetik kanpo geratu zen Turismo Bulegoa; honek urtez urte areagotu egin du eskaintzen dituen zerbitzuen kopurua; urte osoan jarduten du, ekimen gehienak ekainetik aurrera garatzen baditu ere. Horra 2001ean antolatutako ekintzen laburpena:

Hipika ikastaroa (Jataben), uztailean zehar kultur txangoak (laupabost); udako kirol jarduera zenbait Kirik aisialdi taldearen eskutik (guztira 750 lagun inguru aritu ziren 2001ean). Surf ikastaroak (75 lagun 2001ean). San Jose eguneko txakolin azoka. Jai Batzordean parte hartu, baita hainbat ekintzaz arduratu ere. Artisautza azoka. Ibilbideen berreskuratze eta seinaleztatze lanak. Bestalde, aisialdiko erakusketa nahiz azoketara ere, joan ohi dira.

Ekintza hauetatik gehienak gaztelaniaz burutzen dira; azokak eta erakusketak ele bietan (errotulazioan gaztelania nagusi izan ohi da, hala ere), eta jaietan bai, euskarari ematen zaio leku nagusia.

Bisitariak: gehienbat euskal herritarrek (bizkaitarrak nagusiki), hauen ondotik madrildarrak, kataluniarrak eta Frantzia, Alemania eta Italiatik etorri ohi dira. Honako soslaia dute, batez beste, bisitariok: erdi-go maila ekonomikoa duten bikoteak, masifikazioetatik ihes, ingurune zaindu eta lasaiaren bila dabiltzanak, bertoko ohitura eta gastronomia ezagutu nahi dituenak, hareetza ere, alde batera utzi gabe, noski.

Uribe delako eskualdeko beste herrietako turismo bulegoekin koordinatuta egiten dute lan zenbaitetan, ibilbide turistikoak "sortu" eta bultzatuz, zerbitzu eta ondarea zabaltzeko ekimenak abian jarri, eta abar.

Bakio, "**Percotur**" delako plangintzan murgilduta dago egun; horretan, hainbat ekimen abian dira jada; umeentzako jolasgunea, hondartza inguruko urbanizatze lanak, Turismo Bulegoaren berriztatzea, web-orria, publikazio bereziak, promozio-ekintzak, eta abar...

1. Corpus plangintza

Badira urte batzuk, dela AEK, dela beste euskaltzale batzuen ekimenez, hiztegi, esaera edota toponimia lan apal baina duinak egiten hasiak zirela herrian, Udalaren babes ekonomikoarekin. Txirritxolan aldiro-aldiho argitaratzen den "Bakioko euskerea" atala, "Bakioko toponimia" monografikoa, eta beste, dira horren adibide.

Gerora, eginbehar honen garrantziaz jabetuta, Udalak Iñaki Gaminde irakaslearekin hitzarmena egin eta bultzada sendoa eman zaio. Horren emaitza dira "Bakioko euskerea"* liburu eta CDROM delakoa, edota Bakioko toponimiari buruzko lan zabalak, barbarako.

2. Euskarazko Komunikabideak

Bakion aldizkari bi kaleratzen dira: "Bakioko barriak" Udalak (elebietan) eta "Txirritxola"* Euskara Batzordeak, hiruhilekoak biak. Bakio.org web-orria: lehenago eman da horren berri.

3. Literaturgintza: bizpahiru bertso-saio antolatzen dira Bakion urtero; ipuin lehiaketa ere egiten da.

"Bakio eta Lemoiz" liburua euskaraz eta gaztelaniaz, "Itsas-alde" dantza taldearen liburua euskara hutsez, Bakiori buruzko monografiko batzuk eta azken urteotako Gaminderen beharrak, "Bakioko euskara" eta ondorengoak.

4. Publizitatea: Udalarena ele bietan; jarduera pribatuetakoa gehiena gazteleraz, ale batzuk ele bietan eta gutxi batzuk euskara hutsez.

5. Kulturgintza

Siadeco-k egin azterketan aztertu bada ere, ordutik hona aldaketa dexente izan da arlo honetan, Kultur etxearen jarduna urtez urte bizkortuz doalako, besteak beste.

Kultur etxearen jardunaren nolakoa erabakiorra da dagokigun honetan, batetik herritarrentzat bilgune nagusia delako urtean zehar, eta bestetik, gero eta jardun biziagoa dakarrelako, hurrengo orriotako eskeman ikusi ahal den legez.

Kultur teknikariak zuzen hartzen du parte Euskara Batzordean, bai eta Udaleko Kultur Batzordean ere, urte osoko egitaraua nahiz bereziki euskara sustatzekoak eratzten. Hark eta laguntzaileak ere, hainbat ekitaldiren antolaketa hartzen dute euren gain eta herriko beste taldeek antolatzen dituztenetan laguntza eskaini.

Esparru honen azterketa eginda, eta burututako lan handia azpimarratuta, egokitzapenen beharra ere aipatu beharra dago.

Jarduera, nori zuzendua?

Izan ere, 14 urtez beherakoentzako jarduerak, euskara hutsezkoak eta oso garrantzitsuak izan arren, Bakiotarren %10 baino gutxiagori eragiten diete zuzenean; gazteei zuzendutakoak gutxi, eta gehienak euskaraz, baina gaztelerazkoak ere badira. Helduei zuzendutakoak, nahikoak, baina gaztelania hutsez egiten dira.

Nire ustez, gazteen eremuari dagokionez ahalegin berezia egin beharra dago lehenbailehen, euskara hutsezko "bogan" leudekeen ekimenak ugaltu eta urte osoan zehar antolatuz.

Helduei dagokionez ere, urratsak ematen hastea ezinbestekoa da, euskarazko, edota ele bietan gara daitezkeen ekimenak antolatuz...

Lehentxoago adierazi dudan bezala, ondoko koadroan ikus daiteke argiago Kultur etxearen jarduera zertan den.

	UMEENTZAT	GAZTEENTZAT	HELDUENTZAT	GUZTIENTZAT
EKAINA	Marrazki tailerra Olgeta-tailerrak Udaleku irekiak**	Zeramika tailerra Zientzia-fikzioari buruzko jardunaldiak (eusk/erd)		
UZTAILA	Marrazki tailerra Ipuin kontalaria (x2) Udaleku irekiak Zine-emanaldia Zeramika tailerra			
ABUZTUA	Olgeta-tailerrak Txotxongilo saioa Musika tailerrak Xagux@rrak busa	Bertso-afaria		Zine-kalean (erd)
IRAILA			Gimnasia, aerobika (erd)	Argazki lehiaketa
			Yoga, pintura, eskulanak...*	

Siadecok egin azterketan ez zen Kultur etxearen jarduna kontuan izan, gainera, orduetik hona, sano bizkortu egin da haren ekimena. Kultur etxeak antolatutako ekitaldi, ikastaro eta bestelakoen artean, bestelako elkarte edota erakundeekin batera antolatutakoak ere ageri dira.

Taulan ikus daitekeenez, beren-beregi umeentzako eskaintza anitza dago udan, irailan erabat eteten den arte; gazteentzat urria, eta helduek urte osoko iraupena duten tailerrekin jarraitzeko aukera dute, udan ere.

Gazte, heldu, eta "guztientzako" ekintzak ugaritu egiten dira neguan; umeentzakoak, ostera, asko gutxiago dira, hala, udako hiru hilabetetan 12 ekintza, baina, gainontzeko 9 hilabeteetan zehar, 9 ekintza besterik ez dira antolatzen (hurrengo orrialdeko taulan).

*Helduei zuzendutako tailerrak erdara hutsez egiten dira,(baita gazteei zuzendutako ekintza bat edo beste ere).

** Udaleku irekiak uda osoan zehar gauzatzen dira.

KULTUR ETXEAREN JARDUERA IKASTURTEAN ZEHAR

	UMEENTZAT	GAZTEENTZAT	HELDUENTZAT	GUZTIENTZAT
URRIA	Olgeta-tailerrak	Ipuin kontalari ikastaroa		Nafarroa-oinezera autobusa
AZAROA	Ludoteka	Sexualitate-tailerrak		Euskararen jaia
	Euroari buruzko ikastaroa		Euroari buruzko ikastaroa (erd)	"Berbarik onena, zeurea" hitz. Ornodunei buruzko erakusketa
ABENDUA	Olgeta-tailerrak Gabon-parkea Aerobika			Antzerkia Ipuin lehiaketa
URTARRILA	Olgeta-tailerrak	Liburu erakusketa		Diapositiba-emanaldia
			Yoga, esku-lanak...(erd)*	
OTSAILA		Aratusteak		Diapositiba-emanaldia
				Euskal soinu-tresnak emanaldia
MARTIA		Triki-afaria (korrika) Bertso-afaria Emakumearen egunari buruzko erakusketa (eusk/gazt)		
APIRILA	Bideo emanaldia	Tabakoari uzteko jardunaldiak		
	Olgeta-tailerrak			
MAIATZA		Mendiko segurtasunaz ikastaroa (erd)		Ipuin-kanta saioa
		Dieta orekatuaz hitzaldiak		Kale-pintura lehiaketa
		Sexuari buruzko ekitaldia		
		Txirrindularitzaz mahai-ingurua (erd)		

6. Euskara zerbitzua:

Euskara teknikariak "osatzen" du. 28 ordu ematen ditu Bakion (7 ordu Meñakan). Behin behineko kontratuaren jabe. Udaletxeko erabilera plangintzaz, dinamizazioaz, itzulpenez eta trebatze saioez (?) arduratzen da.

7. Euskara batzordea:

- Euskara arloko zinegotzi arduraduna
- Eskolako ordezkaria
- Guraso elkarteko ordezkaria
- Dantza taldekoa
- Pilota taldekoa
- AEK-ko ordezkaria
- kultur teknikaria
- Euskara-normalkuntzako teknikaria.

Hilean behin biltzea adostu bazen ere, apurka-apurka behera egin du taldearen dinamikak; izan ere, ekitaldi bat edo beste antolatzeaz gain, eskumenez gero eta hustuago ageri da, eta horrek eragin zuzena du partaideen gogo eta ilusioarengan, noski.

8. Udaleko aurrekontu osoa. Euskararako aurrekontuaren atalkako desglosea.

Ez dago irizpide finkorik euskararen aurrekontuak zehazterakoan. 1998az geroztiko urteetan behera egin du nabarmen, alabaina, 2002rako igoera handia proposatu du Udalak.

Diruok zertan erabili diren aztertuta (datu osatu gabeen azterketa, edonola ere), nabariak dira planifikaziorik eza eta irizpideetan noraeza.

Urtez urteko egitasmoen mende daude, erabat, aurrekontuok, eta, nahasita aurkeztu dituzte Euskara zerbitzuak, Euskara Batzordeak, Urkitza ikastetxeak, Bakioko aek-k edota Kultur etxeak antolatutako ekintzak.

Edonola ere, hurrengo orrian erakusten diren datuek dira egoeraren islada ezin hobea.

Euskararen aurrekontuak Lortu ahal izan ditugun datuen arabera
(teknikariaren soldata aparte):

Urtea	Udalaren aurrekontua guztira	Euskara sustatzeko aurrekontua
1999	620.490.366 pta	4.194.000 pta.(%0,67)
2000	590.278.771 pta	3.089.405 pta.(%0,52)
2001	656.404.340 pta	2.312.773 pta.(%0,35)
2002	4.037.982,72 euro(671.920.325 pta)	61.596 euro(%1,52)

2000 urteko gastuen banaketa

Bertso afaria	90.000 pta.
Ipuin kontalaria eta marrazkilaria	45.000 pta
Ipuin erotikoak	30.000 pta
Irakurz. sustatzeko ekintzak(olgetataillerra)	100.000 pta.
Ipuin Kontalariak	86.072 pta
Bertso afaria	120.000 pta
Euskararen jaia	600.000 pta
Idazlan lehiaketa	60.0000 pta
Antzezlan	135.000 pta
Txirritxola (hilabetekaria)	700.000 pta.
Bakioko Toponimia aztertze lehiaketa	600.000 pta
Mendebaldeko berbakera eta herriko euskara (sarrenak kenduta)	200.989 pta
Herriko elkarteak(diru laguntzak)	322.344 pta

2002 urterako proposamenerako gastuak

D eredia bultzatzeko kanpaina (triptiko/zapiak)	1.800 euro
"Idazleekin solasean" kanpaina	Nolega
Herriko euskara lantzeko CD-ROM-a	1.800 euro
Eusk-alfabetatzeko ikasleei dirulaguntzak	2.400 euro
Udal beharginentzat trebakuntza-ikastaroa	1.210 euro
Zibergela euskal edukiez hornitzeko txostena eta edukiak eskuratzea	18.000 euro
Umeei zuzendutako aisialdi-txokoa	1.800 euro
Gazteen euskal txokoa (?)	600 euro
Udaleku irekiak	1.800 euro
"Olgetan" tailerrak	670 euro
Ludoteka	720 euro
Toponomiaz eta beste... CD-ROM-a	15.000eur0
Txirritxola aldizkaria	5.500 euro
Ipuin-kontalaria (bi saio)	1.140 euro
Gazteentzako Literatura erotiko-emanaldia	126 euro
Bertso-afariak (2)	1.440 euro
Euskararen jaia	4.800 euro
Txotxongilo eta bestelakoak	4.000 euro

**EUSKARA ONDORENGOETARATZEA
(ONDORIOAK)**

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p><i>Gero eta bikote erdaldun eta misto</i> gehiago dago herrian.</p> <p><i>Eskolako eta herriko eredu enarteko etena</i> (oraintsu hasiak dira gaia lantzen).</p> <p><i>Haur eta Lehen hezkuntzarako aukera</i> besterik ez du ematen Bakioko ikastetxeak.</p> <p>Euskalduntze-alfabetatzerako egitasmo zehatzik ez dago, eta matrikulazioa gorabeheratsua da oso.</p>	<p>Familia bidezko transmisioan hutsune gero eta handiagoak nabari dira.</p> <p>Erdaldunen proportzioa haziz doa biztanleriarekin batera</p> <p>Euskalkiarekiko pertzepzio ezkorra.</p> <p>Euskara ez da euskal nortasunaren adierazpidetzat jotzen, oro har.</p> <p>Euskalduntze-alfabetatzerako baliabide/azpiegitura nahikorik eza.</p>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<p>Guraso elkartearen jarduna.</p> <p>Bakioko ikastetxeak D eredua eskaintzen du soilik.</p> <p>Urkitza ikastetxeko irakasleen jarrera eta lana.</p> <p>AEK-k erakutsi dituen bizkortasuna eta jarrera.</p> <p>Belaunaldi gazteenak euskaraz ere alfabetatuta daude.</p>	<p>Belaunaldi berriak euskaldunak dira ia oso-osoa.</p> <p>Euskalkiarekiko perzepzioak hobera dago, apurka-apurka.</p> <p>Bakioko ikastetxeko matrikulazioaren joera goranzkoa da.</p> <p>Hezkuntzak eskueran jarritako programak (Nolega...)</p> <p>Guraso taldeak sortzeko aukera.</p>

**EUSKARAREN ERABILERA
(ONDORIOAK)**

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p>Kaleko zein laneko bizimodu arrunta gaztelaniaz egin ohi da nagusiki.</p> <p>Arduradun politikoek ez dute apustu sendorik egin orain arte, oro har.</p> <p>Udaleko langileen arteko harremanak gaztelaniaz dira nagusiki eta nahiko geldo agertu dira orain arte, euskararen erabilera bultzatzeko ekimenen aurrean.</p> <p>Euskararen ordenantzak onartu bai, baina puntu asko ez dira abian jarri.</p> <p>Ez dago, beren-beregi, euskararen erabilera bultzatzeari begirako azpiegitura nahikoa.</p> <p>Euskara bultzatzeko ekimenetan inprobisazioa da nagusi; ez da helburu mailakaturik, ez eta neurketa zein jarraipenerako egiturarik zein adierazle sistemarik antolatu.</p> <p>Euskara hutsezko aldizkari bakarraren gabeziak.</p> <p>Euskaldun zaharren artean euskaraz etxean eta kalean gaztelaniaz egitea oso errotuta dago.</p> <p>Gaztelania da prestigidun hizkuntza, gazteen artean, batez ere.</p> <p>Monitore euskaldunak aurkitzeko zailtasunak.</p>	<p>Turismoaren eragina.</p> <p>Hazkunde demografiko azkarra.</p> <p>Udaleko erabilera plana geldiuanean dago azken urteotan.</p> <p>Udalari dagokion derrigortasun indizea ez da bete.</p> <p>Udaleko ohiko jarduera erdaraz gauzatzen da, gehienbat.</p> <p>Merkataritza jardueren arduradunen erdiak baino ez dira euskaldunak.</p> <p>Udako merkatal jarduna ia erabat erdaraz gauzatzen da.</p> <p>Ostalaritzan diharduten langileak, gero eta gehiago, erdaldunak dira; %20 baino ez dira jarduera erabat euskaldunak.</p> <p>Jarduerarik gehienetan, barruko elementu idatziak erdara hutsez ageri dira.</p> <p>Elkarteetan ahozko erabilerari dagokionez, gaztelania da nagusi.</p> <p>Helduei zuzendutako jarduerarik gehienak, gaztelaniaz gauzatzen dira.</p> <p>Umeei begirako ekimenak oso gutxi dira ikasturtean zehar.</p> <p>Gazteei zuzendutako eskaintza urria.</p>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<p>Oraindik ere, euskaldunen proportzioa nahiko handia da.</p> <p>Udalan egiten diren langile kontratazioetan euskararen ezagutza baldintzetako bat da.</p> <p>Udalbatza gai da euskara hutsez jarduteko.</p> <p>Eskualdeko udal gehienetan euskara zerbitzua abian da.</p> <p>Udalak, astiro bada ere, euskaraz jarduteko joera gero eta handiagoa agertzen du.</p> <p>Euskararen ordenantzak onartuta daude.</p> <p>Kultur nahiz aisialdi-jarduera asko antolatzen da urtean zehar euskaraz.</p> <p>Elkarte gehienek kide/ bazkideen euskarazko ezagutza maila altua da.</p>	<p>Elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzeko prestutasuna.</p> <p>Kultur-etxeak gazteentzat antolatutako jarduera gehienak euskaraz dira.</p> <p>Euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu zuten elkarte eta jarduera gehien-gehienek.</p> <p>Oro har, biztanleek euskararen aldeko jarrera adierazten dute, baita jarduera ekonomikoen arduradunek ere.</p> <p>Azpiegitura eta euskaldun kopuruak - oraindik ere- erabilera bultzatzeko aukera ematen dute.</p> <p>Administrazioak EBPN abian jarri izana, eta bertatik egin jarraipena, akuilatze-lana.</p>

**EUSKARAREN ELIKADURA/ EUSKARA ZERBITZUA/ AURREKONTUA
(ONDORIOAK)**

AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p>Euskara Batzordeak ez du jarduera zein partaidetza zabal iraunkorrik lortu.</p> <p>Ez dago publizitaterako finkatutako irizpiderik.</p> <p>Gazteei begira, ez dago irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmorik.</p> <p>Euskararen aurrekontuak oso aldakorrak dira.</p> <p>Herriko aldizkariaren finantzazio-iturri mugatuak eta aldirokotasun aldakorra.</p>	<p>Euskara Batzordea eta Euskara Zerbitzuaren arteko koordinazio nahiz elkarlana ez dira egokienak.</p> <p>Ez dago eskualdeko beste herriekiko koordinaziorik.</p> <p>Dinamizazio nahiz komunikazio arlotan hutsuneak agerikoak dira.</p> <p>Euskara bultzatzeko aurrekontuetan planifikaziorik eza.</p>
INDARGUNEAK	AUKERAK
<p>Irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak burutu ohi dira Kultur-etxean zein eskolan.</p> <p>Bakioko euskara aztergai duten lanak burutu dira jada, eta aurrera darrai ekimen honek.</p> <p>Toponimia finkatu eta zabaltzeko egitasmoa.</p> <p>Liburutegia, Kultur etxea,... azpiegitura nahikoa dago.</p> <p>Kultur etxearen jarduna.</p> <p>Hizkuntza paisaiaren lanketa.</p> <p>Bertsozaletasuna sendotuz doa.</p> <p>Haur nahiz gazte gehientsuenak euskaldunak dira.</p>	<p>Hezkuntza nahiz Kultura Sailek sustatzen dituzten egitarauak.</p> <p>Foru-Aldundiaren egitarauak.</p> <p>Adinekoen ekarpena bideratzeko abian jarritako lanak.</p> <p>Hizkuntz paisaian egindako lanaren emaitzaren eragin sinbolikoa.</p> <p>Kultur etxeraren jardueraren eragin potentziala.</p> <p>Azpiegitura informatikoek eskaintzen dituzten aukerak.</p> <p>Haur eta gazteei zuzendutako ekimenak doitu eta sistematizatzea.</p>

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

HELBURU NAGUSIA, Euskal Herrian, maila pertsonal, sozial eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea... herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuak izan daitezen urratsak areagotu, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko, behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabaki eta bultzatzea, euskararen biziraupena eta normalizazioa bermatuko badira.

Hiru ardatz edo HELBURU ESTRATEGIKO ezarri ziren **EBPN**-n euskara berrabiaraztea helburu:

Euskara ondorengoetaratzea, eta honen barruan:

Irakaskuntza
helduen euskalduntze-alfabetatzea
familia bidezko jarraipena.

Euskararen erabilera, auzogintza eta zerbitzugintza bultzatuz.

Administrazioa
gune euskaldunenak
komunikazioaren teknologia berriak
lan-mundua
aisia, kirola , erlijioa.

Azken helburu estrategikoa **euskararen elikadura** da, honako esparruak azpimarratu dira, horren barruan:

Corpus plangintza
Hizkuntzaren kalitatea
prentsa idatzia
Liburugintza , Irratia, Telebista, Publizitatea, Kulturgintza.

Alor guztietarako indargune nahiz ahulguneak ezarri zituen Euskararen Aholku Batzordeak, eta guztietarako proposamen zehatzak luzatu.

EBPN udaletan ezartzeko hainbat eredu egokitu dira, udalen biztanle-kopurua eta euskaldunen ehunekoak oinarri hartuta:

EUSKALDUNEN %	BIZTANLEAK	
	5.000/10.000	>10.000
A >%15	A1	A2
B %15-%50	B1	B2
C %50-%70	C1	C2
D >%70	D1	

Zazpi ereduoz gain, hiru hiriburuetarako eredu bana ere taiutu da.

Udal mailako Planaren garapenerako, gehien erabili beharreko esparruak zehaztu eta eredu bakoitzerako ekintza egingarriak zedarritu, deskribatu eta baloratu dira, lehentasun hurrenkeran ezarri ere. Udalek, euren egoeran oinarrituta, baldintza nahiz baliabideen arabera aukeratuko dituzte ekintzak, aldirokoatasun, epe, baliabide, arduradunak, eta abar, zehaztuz.

Plan ereduak, esparru bakoitzarentzat egokien jotzen diren aurrekontuen ehunekoak ere proposatzen ditu, orientabide gisa.

Azkenik, Planaren jarraipena eta egokitzapenak bideratzeko softwarea jarri zaie eskueran udalei, horiek, euren urteko planak egoki eta zehatz ditzaten. Plangintza orokorrean ezarritako helburu, ildo nahiz ekintzak zedarritzeko (epe, arduradun, baliabide...), Helburuen Hedapena deritzon softwarea erabili ahal izango dute udalok.

Proposatutako ekintzen helburu nagusia, hiztunek euskara ikasi edo sendotzea da batetik, harreman-sare euskaldunak egituratzea, edota euskarazko zerbitzu eta baliabideen informazioa eskueran jartztea da.

Udalek erabilera plana onartu eta garatu beharko dute, horretarako, euskara zerbitzua egituratu edota sendotuz.

EBPN-k ezarritako Udal-ereduetatik C-1 delakoari jarraiki, Bakioko euskaldun kopurua %67koa baita, 5.000 biztanleko kopurua oraindik urrun badu ere.

BAKION, EUSKARAREN ERABILERA BERRABIAZAZI

Hizkuntza normalizatzeko edozein plangintzaren zutabeak, ekimen politikoa, herritarrek eta alor ekonomikoa dira. Hirurak kontutan hartzea ezinbestekoa da, beraz, planari ekiterakoan.

Lehenik eta behin, euskararen erabilera berrabiarazteko konpromisoa berretsi beharko litzateke, Udaleko ordezkari politiko, erakunde, elkarte, eragile ekonomiko eta, oro har, herritarren aldetik ere.

Konpromiso hori sendo bezain iraunkorra izango dela bermatu behar da, azpiegitura nahikoa ezarriz inplementazio nahiz jarraipenerako ere. Horretarako, sentsibilizazio eta informazio kanpaina planifikatzea ezinbestekoa da, ZER lortu nahi den, ZERGAITIK eta ZERTARAKO, egoki jakinaraziz herritar guztiei. Izan ere, batzuen hizkuntz ohiturak indartu eta gehienek aldatzean datza planaren muina, erronka zaila edonola ere, hainbat herritarren aldeko jarrera kontziente bezain aktiboa eta besteen arteko gehientsuenen onespena behar duena, arrakastarik lortuko bada. Azken batean, herritarrek dute, egungo legediaren itzalean, jardun politikoa zein ekonomikoa baldintzatzeko ahalmena.

Horra, Aymá-Aubeyzon hizkuntzalari Kataluniarraren hitzok:

"Katalanok geure hizkuntza normaltzeko gogo bizia bagenu, honez gero erabat normaldua legoke katalanaren erabilera, agintariei gaina hartuko baikenieke eta herritarren eskakizunen neurrietara makurtu beharko bailukete"

Izan ere, nire ustez, Bakiotar gehien-gehienok euskararen alde egiteko prest egon, bagaude... baldin eta eginbehar edota ahalegin handirik ez badakarkigu horrek.

Herritarrengan zelan eragin?

Batetik, egungo egoera zertan den eta honetara heltzeko arrazoiak zein izan diren, norkbere hizkuntza gordetzea, nortasun eta norkbere buruarekiko estimazioaren adierazle gisa aurkeztuz, besteak beste.

HERRITARREN ESKU HARTZE ZUZENA piztu, areagotu eta orokortu beharra dago, planak aurrera egin, eta esparruz esparru aurreikusitako ekimenek jarraipen eta arrakastarik, "zentsunik" izango badute; nekez jardungo dute Udaleko beharginek euskaraz, agintari, beste Administrazio nahiz herritarren aldetik eskaririk ez badago; beste horrenbeste, lan munduari edota aisialdiari gagozkiolarik ere...

Motibazioa

Orain arte, plangintzaren oinarritzko atal honi behar duen bezain sendo ez zaiola heldu begitantzen zait, hutsune nabarmena dagoela honetan, eta motibazioarena, etengabe landu eta jarraitu beharreko alorra dela.

Eguneroko, etengabeko jardunera bultzatu behar dira herritarrak, patxadatsu, baina behin eta berriro, euren/gure hizkuntz eskubideak errespetatu daitezten esijituz, edota produktuen artean euskarazkoen aukera eginez, eta abar.

Bestalde, funtzio "modernoetara" ekarri behar da euskara, hori izan ohi delako herritarrek, gazteek batez ere, hizkuntzaren hautua egiteko orduan eragile nagusietako bat.

Orain arteko ibilbidea ikusita, planari hastapenetik ekitea litzateke egokiena, hortaz, **arduradun politikoen inplikazioa** lantzea litzateke lehen urratsa, motibazioa eta formakuntzan arreta berezia jarritz, arduradunok baitira Udalean eta honen menpeko erakundeetan (Kultur-etxea, Turismo bulegoa, Udal batzordeak...) zuzenean eragingo dutenak; planarekiko erakusten duten jarrerara erabakiorra izango da honen garapenerako, Udalaren jardunaren zernolakoa, baliabideen esleipena eta araudi egokia bermatzea, ordezkari politikoei baitagokie. Alabaina, politikoki neutro azaldu behar du euskarak, hau da, erabiltzaileari ez lioke ezelako markarik erantsi behar, hortaz, herri-nortasunari bai, baina nortasun politikoari ez zaio lotu behar euskararen erabilera, inondik inora ere. Laburbilduz, ahal den neurrian, eragile politiko guztien adostasunez landutako plana behar du.

Alor ekonomikoa

Honetan eragin nahi bada, "borondatea", "eskubideak", edota "normalizazioa" gisako kontzeptuak lagun, ez dugu, seguruenik, larregi aurreratuko.

Irabaziak dira enpresari gehienentsuenen motibazio bakarrenetakoa, eta hizkuntzari gagozkiolarik, gehiago saltzeko edota prestigioa ekar diezaiokeelako erabiliko du enpresariak euskara.

Euskara ez erabiltzeko "arrazoirik" ere badago, ostera; "politika egiteko" beldurra, bezero erdaldunei gaizki irudituko ote zaien beldurra, norbere produktuekiko Espainian edota espainiarren boikotaren beldurra,... Aipatutako beldurrok ez dira, gehienetan, datu objektiboetan oinarritzen, "usteetan" baizik. Sasoirik onenean ez gaudela ere aitortu beharko da, baina, sasoi egoki hori noiz etorriko zain bagaude...

Hortaz, inongo ekimenik proposatu aurretik motibazioa landu edota uste horiengan eragitea komenigarri litzateke, hots, euskara erabiltzea onuragarri izango zaien "ustea" hedarazi; (Siadeco-k 1998an burututako azterketaren arabera, badirudi uste hori nahikoa orokorra dela Bakion, baina eguneroko jardunean, badira lehentxoago aipatu ditudan beldur horien zantzuak, azterketan azalarazi ez badira ere) euskara ez erabiltzearekin gal dezaketela ikusaraziz, zigor neurririk aipatu ere egin gabe, beti ere. Horretarako, Udalak helarazi dakizkieke euskararen gaineko inkesten emaitzak adibidez, edota marketingile, salmenta-buru eta publizitategileekin mintegiak antolatu, normalizazio prozesuan esku hartzeagatik enpresariak saritu (ez diruz, baina)...

HIZKUNTZ OHITUREN ALDAKETA HELBURU

Non eragin?

Herritarrak, jarduerak

Esparruotarako egingo ditugun proposamenek ondorio biderkatzaileak izan ditzaketen pertsona eta jardunguneetan eragin beharko lukete lehenik; erdi eta goi-mailako klaseetan, kultura jasoko pertsonengan, bogan diren aisi-motetan, jarduera ekonomiko garrantzitsuenetan; baita familiengan, gurean transmisioa kolokan dagoen honetan, berebiziko garrantzia duen esparrua baita,.

Herritarrengan eragingo badugu, "aitzindari" edo "liderrez" baliatzen saia gaitzke, horiengan beren-beregi eragiten ahaleginduz, eta ekimenarekin bat egitera gonbidatuz. Horrela, herritar ezagun, taldeetako buru eta besteren inplikazioa lortzen saitu behar genuke.

Gunerik euskaldunenak gotortu

Bestalde, hiztunak irabazi, eta galdutako jardun-eremuak berreskuratzea helburu duen plana eratu behar genuke Bakion, halanola, eremurik euskaldunenak "gotortu", egun eta datozen urteotako bilakaera demografikoa ez baita euskararen bilakaerarako egokiena.

Soilik euskararen erabilera sustatzeko ekimena?

Edonola ere, euskara ekimen zabalago baten barruan kokatzea litzateke egokiena, helburu gisa barik, egitasmoaren atal eta tresna modura. Duela urte batzuk abian jarritako "Bakio 2010" delako egitasmoak aukera eman dezake horretarako; gero eta gehiago turismo nahiz zerbitzuetara begira jarrita dagoen herri honetan, euskara jarduera horiekin lotzea badagoela iruditzen zait, kalitate irizpideen artean nortasunarena ezarriz, hau baita bisitari asko eta askok bilatzen duena, eta hala aipatzen du Bakioko Turismo bulegoaren txostenak ere; oso kontuan hartu behar da, euskal herritarrak direla gehien bisitatzen gaituztenak, gainera. Hortaz, Bakio ezagutarazteko egitasmo zabal baten barruan koka daitezke zenbait ekimen, ostalaritzari dagozkionak, batik bat.

Hizkuntz normalkuntzako teknikaria

Gizarte aldaketa eragitera dator normalizatzailea; ez da, beraz, filologoa, edo soziolinguistaren lana, izatez. Orain arte ez da oinarri-oinarrizko irizpide hau kontuan hartu hizkuntza normalizaziorako teknikariak hautatzeko orduan; hala, euskal filologoak, edota itzultzaileak dira, nagusiki, normalizazio lanetan dihardutenak (are gehiago, bada al baitari bat edo beste ere...).

Izan bada normalizatzaile filologoarentzat lanik (hizkuntzaren kalitatea zaindu, Korpusa...), baina planari berari, normalizatzaile soziala da dagokiona.

Normalizatzaileak **arlokako adituen laguntza** beharko du, ez baitu zertan jakin jardungune ezberdin ez eta lurralde jakin bateko dinamiken berri. Hortaz, psikologian, ekonomian, soziologian*, zuzenbidean, komunikazio zientzietan, hizkuntzan (horra bai, filologoak eta), baita historia edota filosofian adituak direnen laguntza oso garrantzitsua litzateke. Edozelan ere, gizarte-zientzien hasimasiak nahiz metodorik ohikoenak menperatzeko moduko heziketa jaso behar luke, baita planaren eraginpeko gizarte-atalaren ezagupide nahikoa izan, ere, eta "integrazioa", "akulturizazioa", "talde soziala", "gizarte araua", gisako kontzeptuak, nahiz tokian tokiko ospakizunak, ohiturak, langileen arazo sozio-ekonomikoak, gizarte-zerbitzuak eta abar, ondo ezagutu. Labur esateko, normalizatzaile sozial espezialduak behar dira.

Horrekin ez dut esan nahi Bakioko EBPN garatzeko ardura zuzena dutenek horiek guztiak biltzen hasi behar dutenik, baina zein gizarte esparrutan eragin, eta nola, Bakioko giza-sareen ezagutzak emango digu, beraz, azterketak (Siadecorena hor dago, abiapuntu gisa erabilgarri) zein bestelako ekarpenak ezinbestekoak dira planari ganoraz ekingo badiogu. Horiek, Bakiorako bezain garrantzitsuak dira eskualde edota herrialde osoko herrientzat ere, beraz, Udalez gaindikoa Administrazioek hartu behar lukete eginbehar hori sustatu eta sistematizatzeko ardura, aditu talde zabala eta egonkorra eratuz, azterlanak nahiz ekimenak abiarazi eta udalerrietako euskara arloko arduradunekin elkarlana bermatzeko egitura nahiz baliabideak ezarriz.

*Soziologiak erakutsiko liguke, barbarako, zein diren gizartean esku eta eragin handiena duten pertsonak; honakoa dateke gutxi gorabeherako soslaia: gizarte-maila jasokoak, esku-langileen mailakoak baino lehenago; 35-50 urte bitartekoak; kaletarrak...

AURREKONTUA BANATZEKO PROPOSAMENA (C1 Eredua)

%0-5	%5-10	%10-15	%15-20	%30-35
Irakaskuntza	Kulturgintza	Transmisioa	Eusk.alfabetatzea	Administrazioa
Lan mundua	Kirola			
Erljioa	Aisia			
Publizitatea	Komunikabide/ Komunikazio tekn. berriak			
Liburugintza				
Korpusa				
Teknologia berri.				

C1 eredian lan mundua lehentasunik urrireneko eremuen artean sailkatuta ageri bada ere, nire ustez, Bakion ostalaritzak duen garrantzia eta eraginagatik, kulturgintza edota aisiaren pare jarri beharra dago, gutxienez.

Taulan azaldutako aurrekontuen banaketa abiapuntutzat hartu arren, Bakioko egoera eta errealitatea kontuan hartuz, moldaketa batzuk egitera ausartu naiz; horra hor:

Administrazioa >

Euskalduntze-alfabetatzea; Transmisioa >

Kulturgintza; Ostalaritza-merkataroitza; Aisia/ Kirola; Komunikabideak >

Irakaskuntza; Teknologia berriak >

Korpusa; Erljioa; Publizitatea;

PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Bakion Euskara Berrabiarazteko Planaren helburu nagusia, hizkuntza politikako neurriak hartu eta bultzatzea da, euskaraz (ere) bizi nahi duten herritarrei, helburu horretarako beharrezko diren aukerak bermatu ahal izateko, gizarte maila guztietan.

Hortaz, esparruz esparruko helburuak ezarriko dira, horiek erdiesteko ekintza zehatzak, jarraipenerako bide eta egiturak, eta guztia aurrera eraman ahal izateko baliabide nahiz azpiegitura nahikoak.

PLANAREN IRAUPENA ETA IZAERA

Euskara plana 4 urtez garatzea ("lehen" plangintzaldi gisa)

Bestalde, plana abiarazterakoan, merkataritzari dagokionez, beste izaera bateko egitasmo baten osagarri gisa egikaritzea da nire proposamena.

Bakio promozionatzeko kanpaina baten barruan, euskara kalitate irizpide gisa erabiltzea, nortasunaren adierazpiderik behinena, hain zuzen; hortaz, merkatariei zuzendutako ekintzak ez litzaizkieke aurkeztuko euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo gisa, eskaintzaren kalitatea hobetzeko tresna gisa baizik.

Egitasmo mailakatu bezain zedarrituak abiaraztea da helburua, esparru bakoitzean ibilkatu eta neurtzeko moduko egitasmoak abiaraziz, eta egiazko borondatea dutenen parte hartze eraginkorra bilatuz, guztiengan eragin nahi eta ezin heltzea ekiditea, helburu.

Planaren eraginpeko sujeto eta eremu nagusiak:

- 1.- Udala; Turismo Bulegoa; osasun zerbitzuak; posta zerbitzuak.
- 2.- Ume eta gazteak; Bakioko elkarteak*.
- 3.- *Ostalaritza, banketxeak eta merkataritza esparrua, oro har.

*Arlootan eraginez, besteak beste, helduen erabilera bultzatzea dugu helburu.

Planaren sustatzaile eta eragile nagusiak:

- 1.- Udal arduradunak eta arduradun politikoak, oro har.
- 2.- Euskara zerbitzua eta Euskara Batzordea.
- 3.- Jarraipen Batzordea.
- 4.- Uribe-Butroeko Euskara Batzordea.
- 5.- Kultur etxea eta Turismo Bulegoa.
- 6.- HPS.
- 7.- Eusko Jaurjaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Ageri denez, badira, era berean, eragindako eta eragile izango direnak, Udala eta Turismo Bulegoa, barbarako. Izan ere, euskararen erabilera normalizatu gabe dago aipatutako horietan, beraz, planaren beharrezana dute; baina aldi berean, eragile indartsuak dira (Udala) edota izan daitezke (Turismo Bulegoa,...).

BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURA

Euskara Zerbitzua

Egun HNT bakarrek dihardu lanean, eta agerikoa da ezin diola bakarrik aurre egin sortzen den lan guztiari, itzulpenak eta bestelako uneko lan batzuk ere, beregain omen doaz eta.

Proposamena

Osaketa: Hizkuntz Normalkuntzako Teknikaria (arduraduna) eta Itzultzaile-trebatzailea.

Itzultzaile-trebatzaile bat kontratatu behar litzateke planak dirauen eperako; planaren iraunaldiak iraungitzean, jarraituko duen ala ez, erabakiko litzateke.

Eginbeharrak: Udalaren barne nahiz kanpo harremanetarako egin beharreko itzulpenez, Udaleko langileen trebakuntzaz eta Udalaren ataletan hizkuntz irizpideen aplikazioaren jarraipenaz arduratzea; agiri nahiz inprimaki-eredu egokiak prestatu, kontsultarako baliabideak kudeatu, eta abar. Udaleko Komunikazio Zirkuluen kudeaketa.

Herriko elkarte, erakunde edota jardueretatik letozkeen itzulpen eskariak kudeatu.

Iraunaldia: EBPn abiarazi eta burutu arte.

Kostua: lanpostuari esleitzen zaion kategoriaren arabera.

Hizkuntza Normalkuntzako Teknikaria ; egitekoak:

Udaleko AEBE planaz arduratu eta kudeatu.

EBPNren koordinazio eta jarraipenaz arduratzea.

Euskara Batzordea dinamizatzea.

Jarraipen Batzordearen koordinazioa eta Ebaluazio txostenaren prestaketa.

Urbe-Butroeko Euskararen Partzuergoan parte hartu.

Udaleko beharginen prestakuntza antolatu eta jarraipena egin.

Euskara beharrean erabiltzeko beharrezko baliabidez arduratu.

Helburuen betetze mailaren jarraipena egin eta ebaluazio txostena prestatu.

Hizkuntz irizpideak zehaztu eta horien betetzeaz arduratu; kanpoko erakunde eta enpresekiko harremanez arduratu, irizpideok berma daitezen.

Proposamena

Uribe Butroeko Euskararen Partzuergoa sortzea.

Osaketa: Eskualdeko HNTak (koordinatzailea) eta udalerrietakoek osatuko lukete.

Egitekoak: Eskualde mailan bultzatu beharreko egitasmoak eratu, garatu eta koordinatzeaz arduratuko litzateke.

Kostua: HNTaren soldata (ezarritako kategoriaren arabera).

Bakioko Euskara Batzordea

Proposamena

Osaketa berria:

- Bakioko aek eta ikastetxeko ordezkari bana
- Kultur etxekoa eta Turismo bulegokoa (talde-burua)
- Kultura-zinegotzia
- HNTa (koordinatzailea) eta itzultzaile-trebatzailea
- Itsas-alde dantza taldeko zuzendaritzako kide bat.
- Interesa duten edozein elkartetako zuzendaritzatako kideak.

Egitekoak:

Euskara Zerbitzuak luzatutako proposamenak aztertu eta erabakiak hartu.

Taldeek egin proposamenak aztertu eta erabakiak hartu.

EBPNren jarraipena egin eta Ebaluazio txostena egin, Gobernu Batzordeak azter eta onar dezan; ostean "Jarraipen Batzordeari" eman.

Proposamena

EBPNren Jarraipen Batzordea eratu, herriko esparru ezberdinetako ordezkariak bilduz; prestigiodun pertsonak, ahal den neurrian. Talde guztietako ordezkariak barik, alor ezberdinetan diharduten izenak bilduko genituzke honetara.


EBPNren Jarraipen Batzordea

Osaketa:

- Bakioko alderdi politikoetako ordezkari bana.
- Merkataritza arloko ordezkari bi.
- Elkartetako 3/4 ordezkari.
- Bakioko alkatea edo alkateordea.
- Hizkuntz Normalkuntzako Teknikaria (koordinatzailea).

Egitekoak: nagusiki, Planari herritarren aurrean oniritzia eman, operatiboki baino gehiago, motibazioan eragiteko xedez; herritarren inplikazioa isladatuko luke, nolabait. Hala, EBPNren aurkezpenean parte hartuko luke, eta urtean behin edo, ebaluazio txostena batzorde honen eskutik kaleratuko litzateke prentsaurreko ireki baten bidez.

Kostua: printzipioz, ezer ere ez.



(Irudiaren bidez, batzordeon arteko harremanak islatu nahi izan ditut)

HELBURU, NEURRI eta EKINTZAK ESPARRUKA

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU

Funtsezko esparrua: Administrazioa-Udala (Udalari dagokionez, proposamenak laburbilduta doaz).

Helburu zehatza: euskararen erabilera normalizatzeko egitasmoa berrabiarazi.

Neurriak eta ekintzak:

Euskara zerbitzua sendotu eta berrantolatu HPSrekin elkarlanean.

AEBE plana hastapenetik garatu.

Agintarien parte hartzea bermatu.

Zinegotzi eta langile euskaldunentzat trebakuntza planak taiutu¹.

Hizkuntz eskakizuna lortu ez duten langileen prestakuntza planak zehaztu².

Udal ordenantzak egokitu, berretsi, zabaldu eta egikaritu.

Komunikazio zirkulua eratu eta abiarazi*.

Herritar, elkarte eta bestelako izakundeekiko euskara hutsezko harremanak³ bermatu eta bultzatu (herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz, betiere).

Beste administrazioekiko harremanetarako hizkuntza irizpideak ezarri eta bete⁴.

Zerbitzu, zerbitzu publiko, hornikuntza, obra, aholkularitza eta asistentzia, edota bestelako kontratuetan hizkuntz irizpideak zehaztu eta ezarri.

Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza irizpideak ezarri.

Udaleko planaren jarraipen batzordea eratu, ebaluaketa egin eta neurri zuzentzaileak proposa ditzan⁵.

Zenbait ekintzen zehaztapena:

(kosturik aipatzen ez denean, ohikoarekiko gehikuntzarik ez dakarrelako da):

1- Ekintza

Beharren araberako trebakuntza planak taiutu, astean 2/3 ordukoak, langile nahiz zinegotzientzat, beharrari lotutako edukietan oinarrituta eta Udaletxean, bertan. Zertan trebatu zehatz aukeratu, 3 hilekoetan lantzeko helburu mailakatuak ezarriz.

Lanorduetan ez bada, orduok kontabilizatu eta horietatik 2/3 edo, langilearen "libre hartzeko" egunei gehitu.

Egutegia eta metodologia zehaztu,

Trebakuntza saioen ondoko laguntza eta hizkuntz baliabideak finkatu eta eskueran jarri.

Arduraduna: trebatzailea

Ebaluazioa: HNTak eta trebatzaileak.

Jarraipena: komunikazio zirkuluan.

2 - Ekintza

Lehenago adierazi bezala, "atal" delako honetan Udala, osasun zerbitzua eta posta zerbitzua bildu ditut. Jarraian horientzat egindako proposamenak azalduko ditut.

Bakioko aekrekin HE lortu ez duten langileen eta prestakuntza behar duten zinegotzientzat ikastaroak hitzartu eta abian jarri, talde berezi gisa.

Helburu zehatzak ezarri, ikasturtean zehar astean 4 orduz.

Lanorduetan ez bada, orduok kontabilizatu eta asistentzia egokia izan bada, ordu horietatik 2/3 edo, langilearen "libre hartzeko" egunei gehitu.

Trebatzea saioen ondoko laguntza eta hizkuntz baliabideak finkatu eta eskueran jarri.

Arduraduna: trebatzailea.

Ebaluazioa: aek-ko irakasleak eta trebatzaileak.

Jarraipena: komunikazio zirkuluan.

Kostua: sortzen diren taldeen eta ordu kopuruaren arabera.

3- ekintza

Bakioko herritar, elkarte nahiz bestelako izakundeei, udalarekiko harremanak euskara hutsez gara daitezzen proposatu.

Euskarazko harremanak bermatzeko irizpideak eta baliabideak zehaztu eta jakitera eman, gutun bidez lehenik, eta elkarte nahiz merkatariei banan bana ekimenaren berri eman.

Aipatu guztiekiko harremanetan erabiliko den euskararen egokitasuna (ulerterreza, arina...) bermatu.

Ekimenarekin bat egin (esku hartze zabala bermatu) dutenen zerrenda argitara eman eta jendaurreko aurkezpena egin.

Parte hartzaile guztiak bilduko dituen kartela egin eta zabaldu (leloa: gu... geu).

Arduraduna: hizkuntz normalkuntzako teknikaria.

Iraupena: bi hilabete gutunak bidaltzen direnetik.

Kostua: gutunen bidalketak eta kartelek eragiten dutena.

4-ekintza

Ohiko harremanak izaten diren administrazioekin euskara hutsezko harremana bermatzeko hitzarmenak gauzatu.

Hitzarmena, administrazioetako ordezkari bana eta harremanean zuzenean parte hartuko duten langileek sinatuko lukete.

Arduradunak: alkatea eta HNTa.

Jarraipena: HNTak.

5- ekintza

Udaleko Euskara Planaren Jarraipen Batzordea eratu eta abiarazi.

Osaketa: HNTa; trebatzailea; zinegotzi arduraduna; langileen ordezkariak; udalean ordezkari-tza duten alderdietako zinegotzi bana; HPSko teknikaria (urtean behin). Hiru hilerik behin bilduko litzateke.

Arduradunak: kultur zinegotzia eta HNTa.

Udaleko planaren bilakaera aztertu, jarraipen txostena taiutu komunikazio zirkuluaren proposamenak jaso eta neurri zuzentzaileak proposatuko lituzke.

- **Komunikazio zirkulua:** Udaleko planaren zutabeetako bat behar luke.

Osaketa: planean murgildutako langileetatik, talde honetan parte hartzeko borondatea dutenak eta Udal batzordeetako ordezkari politikoak.

Egitekoak: Euskara zerbitzua eta langileen arteko komunikazioa bermatu; plana gauzatzeko urratsak zehaztu eta egokitzea; zuzenketak edota proposamen berriak luzatzea; erabakiak langile guztiei helaraztea eta neurriak eraginkorrago bihurtzea

Iraupena/ maiztasuna: Udaleko planak iraun bitartean, taldeak berak erabakitako maiztasunez bilduko litzateke. Hasteko, hilean behin, itzultzaile-trebatzaileak eta HNTak zehaztuko luketen gai-ordena abia puntu.

Kostua: lanorduetan balitz, ezer ere ez; bestela, ordu-estrek eragindako gastua.

Honako hauek lirateke Udaleko Planaren azpiegitura eta organo bakoitzaren eginbeharrak, laburbilduta:

Osoko Bilkura Plana berrabiarazteko erabakia hartu. Batzorde Eragileak eta Jarraipen Batzordeak egin proposamenen gaineko erabakiak hartu.	
Gobernu Batzordea Batzorde eragileak eta Jarraipen Batzordeak egin proposamenen gaineko erabakiak hartu, dagokionean.	Jarraipen Batzordea Ebaluazioa egin eta neurri zuzentzaileak proposatuko lituzke. Partaideak lehenago zehaztu dira.
Batzorde Eragilea Planaren kudeaketa teknikoa eta gidaritzak. Osaketa: kultur zinegotzia; HNTa; trebatzailea; langileen ordezkari bat.	Euskara Zerbitzua Planaren kudeaketa zuzena dagokio. Partaideak lehenago zehaztu dira.

HELBURU, NEURRI eta EKINTZAK ESPARRUKA

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU

Funtsezko esparrua: Turismo Bulegoa

Helburu zehatza: Turismo bulegoaren jardunean euskararen erabilera normalizatu.

Ekintza: trebakuntza plana.

Atal honetako langileentzat euren eginbeharrei dagokien trebakuntza berezitua.

Iraupena: ikasturtean zehar, astean bi orduz; laneko edukietan oinarritua, gaitasun nahikoa lortu arte (bi ikasturtez?).

Arduraduna: trebatzailea.

Jarraipena eta ebaluazioa: trebatzailea eta HNTa.

Ekintza: hizkuntz irizpideak zehaztea.

Turismo bulegoko jarduerari dagozkion hizkuntz irizpideak adostu, hizkuntz paisaia, harreman, publikazio nahiz antolatzen dituzten jarduerari dagokionez ere.

Arduradunak: Turismo bulegoko arduraduna eta HNTa.

Jarraipena: aipatutakoek.

Adierazleak: publikazioak (era guztietakoak); idatzizko komunikazioak, telefonoa.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU

Funtsezko esparrua: osasun eta posta zerbitzuak

Helburu zehatza: arian-arian, gura duten herritarrei zerbitzua euskaraz emango zaiela bermatu.

Ekintza: prestakuntza plana.

Atal honetako langileentzat euren eginbeharrei dagokien trebakuntza berezitua. Iraupena: ikasturtean zehar, astean bi orduz; laneko edukietan oinarritua, gaitasun nahikoa lortu arte (ikasturte bat?).

Arduraduna: Bakioko aek.

Jarraipena eta ebaluazioa: Bakioko aek eta HNTa.

Kostua: iraupenaren arabera.

Ekintza: hizkuntz irizpideak adostu.

Jardueroi dagozkion hizkuntz irizpideak adostu, hizkuntz paisaia, harreman, publikazio eta abarrei dagokienez.

Arduraduna: HNTa.

Jarraipena: HNTak.

Adierazleak: hizkuntz paisaia, publikazioak, idatzizko komunikazioak, telefonoa...

Epea: hiru hilabete.

Kostua: posta eta osasun zerbitzuen kontura.

Ekintza: zerbitzuokin hitzarmena lortu.

Behargin euskaldunak berma ditzaten hitzarmena egin zerbitzuon arduradunekin.

Arduradunak: kultur zinegotzia eta HNTa.

Jarraipena: aipatutakook.

Iraupena: epe barik.

Helburu zehatza: komunikaazio plana.

Ekintza: komunikazio plan zehatza eta eraginkorra taiutu.

EBPNri buruzko oinarritzko informazioa herritar guztiei helarazi, modo eraginkor eta baikorrean; aldiro-aldiro, gauzatutako eta gauzatzeaz leudekeen ekimenen berri eman, arrakastaz burututako ekimenak azpimarratuz, era horretara herritarrak motibatuz eta parte hartzera bultzatuz. Urtean behin edo, Jarraipen Batzordearen agerraldia txertatu beharko litzateke, herritarren parte hartzearen islada gisa.

Ardura: Euskara Batzordea eta HNTak.

Jarraipena: aurreko biak eta Jarraipen Batzordeak.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU

Funtsezko esparrua: merkataritza.

Helburu zehatza: ostalaritzan behinik behin, euskararen erabilera sustatu.

Ekintza: "Bakio, gu geu" kanpaina: baliabideak eta laguntza eskaini.

Turismo bulegoaz jardun dugunean zehaztutakoaz gain, merkatariei laguntza eta baliabideak eskueran jarri: itzulpen zerbitzua, errotulazioa eta hizkuntz paisaia euskaratzeko laguntza...

Arduraduna: HNTa eta Turismo bulegoko burua.

Jarraipena: Bakioko Euskara Batzordea eta HNTa.

Iraupena: epe barik.

Kostua: hitzartutako laguntzen araberakoa.

Funtsezko esparrua: merkataritza. Helburu zehatza: banketxeetan euskarari eta gaztelaniari ematen zaien tratamendua parekatzea.

Ekintza: hizkuntz irizpideak ezartzera bultzatu.

Bakioko BBK eta La Caixari aipatutako kanpainan parte hartzera gonbidatzeaz gain, eskualdean diharduten banketxeen arduradunei hizkuntz irizpide jakin batzuk ezartzea proposatu.

Arduraduna: Uribe Butroeko euskararen partzuergoa eta eskualdeko euskara arloko zinegotzi arduradunak.

Jarraipena: Bakioko Euskara Batzordea eta HNTa.

Adierazleak: bezeroei harrera, hizkuntz paisaia, publikazioak, errotuluak, kutzazain automatikoak, bezeroekiko idatzizko harremana...

.Helburu zehatza: merkataria euskarazko zerbitzua bermatzera bultzatu.

Ekintza: "Bakio, gu geu" kanpaina. Bakioko gida.

Bakio eta bertako produktuak promozionatzeko kanpaina: ezaugarri behinenak, nortasuna kalitate irizpide gisa, eta nortasun horren adierazpide nagusi, euskara, baina ez helburu lez, ezinbesteko osagarri gisa baizik.

Merkataria kanpaina horretan esku hartzera gonbidatu, onuradun zuzenak eurak izango baitira; euskarazko zerbitzua bermatzea, egoitzetako hizkuntza paisaia gutxienez ele bietan izatea, errotuluak, eta abar... kalitate adierazletzat joko da. Jarduera ekonomikoen ezaugarriok aipatuko dituen Bakioko gida osatu, eta zabaldu.

Bestalde, "Euskaldunentzako Bakioko gida" ere osatu, bestelako ezaugarriez gain, euskarari dagokionez, gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituztenek osatua; gida hau euskaltegi guztietara eta bisitari euskaldunei banatuko litzaieke.

Ardura: Turismo bulegoa.
Iraupena: urte bete.
Kostua: publizitatearen ekarpenen bidez finantziatua.
Adierazleak: parte hartzen duen jarduera kopurua.
Jarraipena eta laguntza: HNTak eta trebatzaileak.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU

Funtsezko esparrua: informazio eta komunikazioaren teknologia berriak.
Helburu zehatza: euskarazko baliabide informatikoak eskueran jarri.

Ekintza: zibergela euskarazko eduki zein aplikazioez hornitzea (abian da).
"Hori.hori" enpresak euskarazko edukiei buruzko txostena egin zuen.
Kostua: 3.000 euro.
Aplikazio eta edukiak eskuratzea: 15.000 euro.
Arduradunak: kultur zinegotzia eta kultur teknikaria.
Jarraipena: kultur teknikariak.
Epea: hiru hilabete, (zibergela abiaraztearekin batera).

Funtsezko esparrua: informazio eta komunikazioaren tkn. berriak.
Helburu zehatza: gazteei, behinik behin, euskarazko prestakuntza informatikoa eskaini.

Ekintza: zibergelan kalitatezko informatika ikastaroak eskaini euskaraz soilik gazteentzat, eta horietara bultzatu helduak ere.
Arduraduna: kultur teknikaria.
Jarraipena: HNTak
Kostua: ikastaroen ezaugarrien eta matrikulazio mailaren arabera.
Iraunaldia: epe barik.

Funtsezko esparrua: aisia eta kirola.
Helburu zehatza: baliabideak optimizatu.

Ekintza: aisia nahiz kirol jardueren egutegia eta hizkuntz irizpideak elkarrekin adostu, Kultur etxeak, Turismo bulegoak eta Euskara batzordeko elkarten ordezkariak. Baliabideak optimizatu kostuak, egutegia nahiz eremukako eskaintza orekatze aldera.
Ardura eta jarraipena: kultur teknikariak, turismo-buruak, euskara batzordeko ordezkari batek eta HNTak.
Iraupena: urtez urtekoa; behin egutegia eta eskaintza adostu ostean, hiru hilerik behin bilduko lirarteke, jarraipena egin eta zuzenketak egikaritzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ONDORENGOETARATZEA

Funtsezko esparrua: irakaskuntza

Helburu zehatza: eskolako ordutegiaz kanpoko egitarauak bultzatu.

Ekintza: Egitarau zehatzak antolatu, euskara ohiko harreman hizkuntza bilakatzea helburu. Horretarako NOLEGAK eskaintzen dituen ahalik eta aukera gehien baliatu, IKE (ikasgelaz kanpoko ekintzak) eta EGE (euskal girotze barnetegiak), "idazleekin solasean" berbarako.

Ardura: Urkitza ikastetxeak.

Jarraipena: Urkitza ikastetxeko euskara arduraduna eta HNTak.

Iraupena: ikasturteka.

Adierazleak: burututako jarduerak eta parte hartzea.

Funtsezko esparrua: irakaskuntza

Helburu zehatza: ikasleen ahozko adierazpena eta hizkuntz kalitatea sendotu.

Ekintza: Gamindek prestatuturiko CD-ROMa (ingurune fisikoa, herriko euskara, bizkaiera literarioa eta batuaren arteko zubi lana egiteko ariketak...) oinarri, irakasleek unitate didaktikoa prestatu eta erabiliko dute (abian da, dagoeneko).

Ardura: Urkitza ikastetxeak.

Jarraipena: Urkitza ikastetxeko euskara arduraduna eta HNTak.

Kostua: gida praktikoa eta ariketak 1.800 euro.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ONDORENGOETARATZEA

Funtsezko esparrua: helduen euskalduntze alfabetatzea

Helburu zehatza: matrikulazio kopurua gehitzea

Ekintza: Bakioko aek eta Udalak hitzarmena gauzatzea.

Horren bidez, euskaltegia arduratuko litzateke hainbat Udal-langileren prestakuntza edota trebakuntzaz; merkataritza arloko langileentzako eskaintza berezia; matrikulazioari laguntzen bidez ere, herritarrek euskara ikastea bultzatuko lirateke; azkenik, ezarri berri den azpiegitura informatikoa ere lagungarri izan daiteke, euskaltegiari ordu jakin batzuetarako utzi ezker, ikasleen errefortzu ariketetarako eta.

Ardura: kultur zinegotzia eta aek-ko arduradunak.

Jarraipena: HNTak eta Bakioko aek-k.

Adierazleak: matrikulazio kopurua, ikasleen emaitzak...

Kostua: ikastaro eta matrikulen araberakoa.

Funtsezko esparrua: helduen euskalduntze alfabetatzea

Helburu zehatza: euskararen etxea egitasmoa gauzatzea.

Ekintza: Bakioko aek, Udala, Aldundia eta Jaurlaritzak aterpe baten egitasmoa hitzarmen bidez gauzatzea.

Horren bidez, Turismo bulegoa arduratuko litzateke aterpearen kudeaketaz Bizkaiko aekren laguntzaz (irakasleak edota trebatzaileak). Aterpeak urte osoan zehar jardungo luke Bakion dagoen ostatu eskasiari aurre eginez eta euskara hutsez. Barnetegiak eta bestelako jarduerak ere, eskainiko lituzke.

Ardura: kultur zinegotzia eta Turismo bulegoak.

Jarraipena: HNTak eta Bakioko aek-k.

Adierazleak: etxearen erabilera maila, burututako jarduerak, balantze ekonomikoa.

Kostua: handi samarra; Udalak, Foru Aldundiak, Jaurlaritzak eta bezeroen aportazioen bidez finantziatuko litzateke.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ONDORENGOETARATZEA

Funtsezko esparrua: familia bidezko jarraipena.

Helburu zehatza: gurasoak euskaldundu.

Ekintza: Bikote erdaldun eta mistoetako kide erdaldunak euskalduntzeko kanpaina. "Seme-alaben eskutik" izan liteke leloa. Kanpainaren muina, seme-alabei eskolako lanekin laguntzeko gaitzea dateke; euskalduntze prozesu arruntarekin batera, eskolako hiztegia landu beren-beregi... Gurasoen beharrianen araberako ordutegia (astean 4 orduz, gutxienez).

Ardura: Urkitza ikastetxea, Euskara Batzordea eta Bakioko aek-k.

Jarraipena: aipatutakoek.

Adierazleak: matrikulazio kopurua, emaitzak...

Kostua: matrikulen araberakoa.

Funtsezko esparrua: familia bidezko jarraipena.

Helburu zehatza: transmisioa sustatu..

Ekintza: Etxean euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina.

Ikastetxean landu beharreko herriko euskarari buruzko unitatea, etxeko (joan-etorriko) jariketekin osatu, guraso euskaldunak dituzten umeen kasuan.

Gurasoekin eztabaida-berbaldiak antolatu etxean euskara erabiltzearen garrantziaz ohar daitezten (bikotekideen artean, lehenengo eta behin); esku-liburua prestatu eta zabaldu...

Ardura: Euskara Batzordea eta Guraso Elkarteak.

Jarraipena: Euskara Batzordeak.

Adierazleak: urtez urteko inkesta.

Traupena: ikasturtekakoa, epe barik.

Kostua: esku-liburua eta hitzaldiek eragiten dutena.

Funtsezko esparrua: familia bidezko jarraipena.

Helburu zehatza: transmisioa sustatu..

Ekintza: ume-zaintzaile euskaldunen lan-poltsa sortu.

Ardura: Guraso Elkarteak eta Udalak.

Jarraipena: Guraso Elkarteak.

Kostua: publizitateak eragindakoa.

HELBURU ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN ELIKADURA

Funtsezko esparrua: komunikabideak

Helburu zehatza: eskualdeko aldizkaria sortu.

Ekintza: Eskualdeko Udalen arteko hitzarmen bidez, Uribe Butroeko euskara hutsezko aldizkaria sortu, egungo Nontzebarri (Mungia) eta Txirritxola (Bakio) ordezkatzuz eta baliabideak optimizatuz, azpiegitura sendoz hornitu, kalitatea eta zabalkundearen mesedetan.

Ardura: Uribe Butroeko Euskararen Partzuergoak.

Jarraipena: Uribe Butroeko Euskararen Partzuergoa.

Kostua: urteko 24.000 euro.

Finantzazioa: Udalek, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta publizitate bidezko sarrerak.

Funtsezko esparrua: komunikabideak

Helburu zehatza: eskualdeko irratia sortu.

Ekintza: Eskualdeko Udalen arteko hitzarmen bidez, Uribe Butroeko euskara hutsezko irratia sortu, Bizkaia irratiarekin hitzarmena eginez, barbarako, haren frekuentzia baliatuz egun eta ordu jakin batzuetarako, saio batzuk lankidetzan eratuz...

Ardura: Uribe Butroeko Euskararen Partzuergoa eta Bizkaia irratiak.

Jarraipena: Uribe Butroeko Euskararen Partzuergoa.

Kostua: zehazteke.

Finantzazioa: Udalek, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta publizitate bidezko sarrerak.

Funtsezko esparrua: Corpus plangintza

Helburu zehatza: Corpusaren inguruko egitasmoak optimizatu

Ekintza: orriotan behin baino gehiagotan aipatutako herriko hizkera edota toponimiaren gaineko lanei etekina ateratzeko bideak antolatu, hau da, lanon zabalkundea eta erabilera bermatu egitarau zehatzen bidez (abian da, jada, Urkitza ikastetxean horietako bat), eta lanon erritmoa doitu, azken bi urteotan euskarari emandako aurrekontuetatik esparru honetara bideratu diren baliabideek lehenetasun handiagoko bestelako ekimen batzuk atzeratzea ekarri baitu.

Ardura: Euskara Batzordea, kultur zinegotzia eta HNTak.

Jarraipena: aipatutako hirurok.

BAKION EUSKARAREN ERABILERA BERRABIARAZTEKO PLANA

Diagnostikoa

Atarikoa	1. orr.
Biztanleriaren egitura	2
Hizkuntz gaitasuna	4
Familia bidezko jarraipena	6
Irakaskuntza arautua	8
Euskalduntze-alfabetatzea	11
Auzogintza eta zerbitzugintza	12
Udalaren egoera soziolinguistikoa	12
Bestelako administrazio eremuak	19
Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak	20
Lan mundua	21
Hizkuntz egoeraren azterketa	27
Emitza orokorrak	36
Ondorio nagusiak	38
Aisia, kirola, erlijioa: hizkuntz egoeraren azterketa	39
Emitza orokorrak	50
Euskararen elikadura: egoeraren azterketa	52
Azpiegitura eta baliabideez	56
Ondorioak eremuka (Amia matrizea)	58

Proposamena

EBPNri buruz	61
Bakion euskararen erabilera berrabiarazi	63
Hizkuntz ohituren aldaketa helburu	65
Planaren helburu, eta izaeraz	67
Baliabideak eta azpiegitura	69
Helburu, neurri eta ekintzak	
Udala	72
Turismo bulegoa	75
Osasun eta posta-zerbitzuak	76
Komunikazio plana	76
Merkataritza	77
Teknologia berriak, aisia, kirola	78
Irakaskuntza	79
HEA	80
Familia bidezko jarraipena	81
Euskararen elikadura	82
Bibliografia	84

BIBLIOGRAFIA

Udalerrrikako estatistikak. Eustat.

Euskadi.net/ euskara web-orria.

Soziolinguistikazko mapak. HPS.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Udal ereduaren arabera.
HPS/ Kultura Saila.

Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza Orokorra.
Ane Crespo eta Amaia Agirre/ Hiznet 01/02.

Bizkaiko Udal eta Mankomunitateetako euskara zerbitzuak.
Bizkaiko Foru Aldundia. 2001eko urria.

Euskararen erabilera administrazioan (ihardunaldiak)
HPS/ Kultura Saila/ Eusko Jaurlaritzak (1995)

Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena
Aholku Bilduma Eusko Jaurlaritzak/ Euskararen Aholku Batzordea

Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (1993)

Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak.
Iñaki Marko Hiznet 01/ 02

Hizkuntz plangintzaz esaten ez dena.
Aymá-Aubeizón. HABE.

Familia bidezko jarraipena: hiztun herriaren muina.
Josean Urdangarin. HPS.

Gazteen aisialdia eta euskara.
Urri Urizar eta Amaia Gabilondo. HPS.

Bakioko Kultur etxe eta Turismo bulegoaren 2001eko memoriak.

Bakioko gizarte bizitzan euskararen erabilera areagotzeko egitasmoa.
Siadeco (1998).